Gida Plan honek garapen jasangarrirako lankidetzaren esparruko politiken koherentziari buruz jasotzen dituen proposamenak diseinatzeko, aipatutako nazioarteko erakundeetatik datozen aipatutako hurbilketez gain, kontuan hartu dira ELGaren Garapenari Laguntzeko Batzordeak 2021ean egindako pareen berrikuspena (*peer review*), V. Gida Planaren ebaluazioa eta Lankidetzaren Kontseiluaren lantaldeak 2030 Agendari buruz egindako ekarpenak. Oinarrizko arauaren erdigunean garapen jasangarrirako politiken koherentzia duen Espainiako lankidetzaren erreforma baten testuinguruan, zenbait ekintza zehazten dira hura sustatzeko eta indartzeko:

- 1/2023 Legearen arabera, garapen jasangarrirako lankidetzaren politikari dagokionez, lege horretan ezarritako koordinazioko eta kontsultako organoetan landuko da garapen jasangarrirako politiken koherentzia. Horregatik, Garapen Jasangarrirako Lankidetzaren Sektore Batzarra, Ministerioarteko Batzorde berria eta Garapen Jasangarrirako Lankidetzaren Kontseilu Gorena organo indartu gisa abian jartzea funtsezkoa izango da garapen jasangarrirako politiken koherentzia sustatzeko.
- Garapen Jasangarrirako eta Munduko Solidaritaterako Lankidetzaren Kontseilu Goren berriaren eta Garapen Jasangarrirako Kontseiluaren arteko harremana bultzatzea.
- Plangintza estrategikorako tresnen plangintzako eta kontsultako prozesuetan parte hartzeko guneak zabaltzen eta aberasten jarraitzea, prozesu horietan nahastutako ahalik eta eragile gehienaren agerpena modu antolatuan bateratzeko.
- Urtero Espainiako Lankidetzaren Plangintzako eta Eraginkortasuneko Fororako deialdia egitea, Espainiako eragile guztien arteko elkarriketarako eta parte-hartze irekirako gune gisa, eragile anitzeko informazioaren trukea sustatzeko Legean aurreikusitako



konsultako eta partaidetzako organoetatik haratago.

- Garapen Jasangarrirako Erabateko Babes Ofiziala metrikaren (TOSSD, ingeleseko sigletan) jakinarazpena hobetzea eta optimizatzea, garapen jasangarrirako politiken koherentzia GJHen esparruan zehazteko beharrezko tresna gisa, informatzaileen oinarria eta jakinarazten diren fluxuak zabalduz.

# 3

## ESPAINIAKO LANKIDETZA TRANTSIZIO HIRUKOITZAREN ESPARRUAN: IKUSPEGIAK ETA LEHENTASUNAK



Gida Plan honen denbora-esparrua (2024-2027) erabakigarria izango da osasun-krisialdiaren, elikagai- eta energia-krisialdiaren eta klima-larrialdiaren ondorioz galdutakoa berreskuratze eta gai-zerrenda liberalen gorakadak dakarren aldeaniztasunerako eta bakerako mehatxuari aurre egiteko. Pobreziari (azken hiru hamarkadetan COVID-19 gaixotasunaren ondoren lehen aldiz handitu dena) eta era guztietako desparekotasunei aurre egiteko helburu nagusiari ikuspegi feminista batetik genero-arrakalak murrizteko beharra eta demokrazia eta herritarren parte-hartze osoa sustatzea gehitu behar zaizkio, pertsona guztien giza eskubideak babestuz (eta, bereziki, bereizkeria eta zaugarritasun handieneko egoeran daudenenak), ingurumena babestea-rekin batera.

Trantsizio hirukoitzak dakarren eraldaketa ez da eskualde eta herrialde guztietan egoera alderagarri batetik abiatzen. Gida Planak trantsizio-rako edo eraldaketarako funtsezko hiru alderdi horiek identifikatzen ditu mundu eta tokiko mailan, eta egoera hirukoitz horretan kokatzen dira Espainiako lankidetzaren ardatz izango diren oinarrizko ekintza-ardatzak, beti lehentasunezko zat identifikatutako zeharkako ikuspegiak kontuan hartuta.

Aldeaniztasunaren defentsa eta erakunde demokratikoen indartzea dira Espainiako lankidetzaren gai-zerrenda egituratzen duten osagaiak. Espainiaren kanpoko ekintzaren helburu nagusian, bakea sustatzea eta eraikitzea, kokatzen dira bere lehentasunak. Bake horrek iraunkorra izan behar du eta giza eskubideak errespetatu behar ditu. Hori dela eta, eskubideen ikuspegia duen gobernantza demokratikoa hiru trantsizioak egiteko aukera ematen duen helburu gisa ere ulertu behar da, 16. GJHaren esparruan. Herritar guztien giza eskubideak bermatzen dituzten eta gobernu onean eta ustelkeriaren aurkako borrokan oinarrituta dauden erakunde publikoak sendotzea lehentasunezko osagai bihurtzen da nazioarteko sistemaren krisialdiaren eta aniztasun politikoaren mehatxuaren testuin-

guruan. Erakunde publikoek aniztasunaren eta diskriminaziorik ezaren babesean duten zeregina Gida Plan honen esparruan garatutako ekintzak kokatzen dituen osagai iraunkorra izan behar da.

## 3.1. Zeharkako ikuspegiak

### 3.1.1 Giza eskubideen ikuspegia

Garapen jasangarrirako lankidetzaren giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia, araudiaren ikuspuntutik, giza eskubideen nazioarteko arauak betetzean oinarritzen da eta, eragiketen ikuspuntutik, eskubide unibertsal, besterenezin, preskribaezin, banaezin eta elkarren mendeko horiek sustatzera eta babestera bideratzen da. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoak adierazi bezala, diskriminaziozko praktikak eta zerbitzu publikoetara eta garapen jasangarrirako aurrera egitea oztopatzen duten erabakiguneetara iristeko bidezko sarbideko arrakalak zuzentzea du helburu.

Espainiako lankidetzak lan egingo du herrialde kideek, gizarte zibilak, eragile ekonomikoek, erakunde aldeaniztunek eta tokiko erakundeek ikuspegi hori abian jartzeko duten gaitasuna indartzeko. Integrazioa, gizarte-kohesioa, eta berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan eskubideetarako sarbidea hobetzeko neurriak babesteko lan egingo du ere bai, eta pertsona guztiek kalitatezko zerbitzuak eskuratzeko aukera bermatzeko, Espainiako Giza Eskubideen II. Plan Nazionalarekin (2023-2027) eta EBeko Giza Eskubideetarako eta Demokraziarako Ekintza Planarekin bat etorritik.

Espainiako lankidetzaren jardueraren guztien oinarri gisa hartutako ikuspegi horrekin, Espainiak pertsona guztien ahalduntzea sustatzen du haien eskubideak bete-betean erabiltzeko, politikan parte-hartzeko, justizia soziala eta lan duina sustatzeko, eta kontuak emateko,

genero-arrazoiengatiko edo beste arrazoi batzuegatiko, hala nola arraza edo etnia, kultura edo hizkuntza, erlijioa edo sinesmenak, jatorria, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa, genero-nortasuna edo -adierazpena, eta abarregatiko diskriminaziorik eza zainduz. Beste tolerantziarik ezeko modu batzuen aurkako borroka ere sustatuko du, arreta berezia jarriz zaugarritasuneko edo bereizkeriako egoeran dauden pertsonen, eskubide zibil eta politikoak bultzatuz eta babestuz, adierazpeneko, elkartzeko eta biltze baketsuko askatasuna barne eta, ondorioz, eremu zibikoa indartuz eta gizarte zibilak giza eskubideen defentsan eta justizia sozialaren sustapenean modu aktiboan parte hartzeko ingurune egokia bermatuz.

Espainiak pertsona guztien giza eskubideak babestean eta sustatzearen alde egingo du eta, aldi berean, arreta berezia jarriko du testuinguru askotan egoera oso zaugarrian dauden gizatalde jakin batzuen giza eskubideetan. Horrek barne hartzen ditu (nola ez, bereziki kanpoko politika eta lankidetzaren esparruan) emakumeen eta nesken eskubideak, arlo horretako nazioarteko esparru nagusiak, Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Batzarra (CEDAW, ingelesezko sigletan) eta Pekineko Adierazpena eta Ekintza Plataforma barne, eraginkortasunez betetzetik landuko direnak, eta Gida Plan honek, era berean, berariaz eta zehatzago, zeharkako ikuspegi feministaren eta genero-ikuspegiaren pean garatzen dituena.




### Haurren eta nerabeen eskubideak, bereziki neskenak eta emakume nerabeenak

*Espainiak Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena berretsi zuen 1990ean. Haurren eta nerabeen eskubideak modu eraginkorrean aintzat hartzeak eragingo ditu garapen jasangarrirako lankidetzaren politikak eta ekintza humanitarioko politikak, Espainiako lankidetzak dituen tresnekin bat etorritik, hala nola 2015eko Haurrentzako Estrategia, Lankidetzaren Kontseiluaren Haurren Eskubideen Lantaldearen Haurren Eskubideei buruzko esparru-dokumentua ("Haurren eskubideak Espainiako lankidetzan txertatzeko gakoak"), eta haurren eskubideak zeharka, berariaz edo sektorean presente egongo direla bermatzeko ibilbide-orria.*



### Lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen eskubideak (LGTBI)

*Nazio Batuen giza eskubideen oinarritzko mekanismoek berretsi egin dute estatuek sexu-orientazioan eta genero-nortasunean edo -adierazpenean oinarritutako bereizkeria eta indarkeria guztien aurka pertsona guztien benetako babesa bermatzeko beharra dutela. Espainiako lankidetzak Yogyakarta Oinarriak sustatuko ditu, giza eskubideen nazioarteko legeria bere jardueran guztietan aplikatzeari dagokionez, baita LGBTI pertsonen eskubideak eta zerbitzuak, parte-hartze politikoa eta aukera ekonomikoak berdintasunez eskuratzeko pairatu behar dituzten arrakalak desagerrarazteko beharra ere.*




### Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak

*Espainiako lankidetzak lanean jarraitzen du desgaitasunaren bat duten pertsonak eta haien eskubideak nazioarteko lankidetzaren gai-zerrendan sartzeko, parte hartzen duen nazioarteko foroetan barne, eta desgaitasunaren bat duten pertsonak ordezkatzeko dituzten Espainiako erakundeak ditu kide nagusi. Bai garapen jasangarrirako lankidetzak, bai Espainiako ekintza humanitarioak zeharkako ikuspegi txertatuko dute, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena betetzea bultzatuz, Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen gomendioei eta AECID erakundearen Garapenerako lankidetzaren desgaitasuna txertatzeko gidari jarraituz.*



### Adinekoen eskubideak

*2021ean, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) Zahartze Osasuntsuaren Hamarkada (2021-2030) ezarri zuen. 1/2023 Legeak arreta bereziko talde gisa hartzen ditu adinekoak, sarritan aurre egin behar izaten dioten zaurgarritasuneko egoera dela eta. Horren ondorioz, Espainiako lankidetzak lan egingo du bere jardueretan adinaren ikuspegi modu eraginkorren txertatzeko, ikuspegi intersektorialetik eta Nazio Batuen 1991ko adinekoen aldeko oinarriak eta adinekoen giza eskubideei buruzko aditu independentearen txostenak eta gomendioak kontuan hartuz.*



### Herri indigenen eskubideak

*Herri indigenen kultura-aberastasuna eta haien garapenerako ereduak aitortzea ez dator bat askotan jasaten dituzten bazterketako eta pobreziako egoerekin. Izan ere, arbasoen lurraldeetatik kanporatzen dituzte maiz. Gainera, Nazio Batuen Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adierazpenean, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 169. Hitzarmenean eta giza eskubideen nazioarteko beste tresna batzuetan jasotako eskubideen aitortpenak oraindik ere arrakala handiei aurre egin behar die benetan gauzatzeko orduan. Hasiera-hasieratik, Espainiako lankidetzak arreta berezia jarri du kultura-aniztasunean bere jardueraren oinarri horizontal gisa eta, gainera, herri indigenei arreta zehatza emateko beharra irmotasunez bultzatuz joan da, Espainiako lankidetzaren Herri Indigenetarako Estrategiarekin eta AECID erakundearen Programa Indigena gero eta sendoagoarekin agerian utzi zuen bezala.*

*Hori dela eta, herri indigenen erakundeak laguntzen jarraituko dugu, garapen ekonomikoko eta sozialeko prozesu propioak eraikitze gaitasunak indartzen laguntzeko eta maila politikoan erabakiak hartzen eraginkortasunez parte hartzeko, arreta berezia jarriz emakume indigenen ahalduz. Era berean, nazioartean eragiten dieten prozesu guztietan herri indigenen parte-hartze politiko osoa eta eraginkorra; eskubideen nazioarteko estandarren ezarpen eraginkorra, arreta berezia jarriz libreak eta informatuak diren aurretiko kontsultan eta adostasunean; komunikabideen erabilera eraginerako tresna propio gisa; eta Latinoamerikako eta Karibeko Herri Indigenen Garapenerako Funtsaren (FILAC, gaztelaniaz) funtzionamendu instituzionalari egiten zaion ekarpena bultzatzen jarraituko da.*



## Afro-ondorengo eskubideak

*Afro-ondorengo Programaren esparruan eta Espainiako Lankidetzaren Garatzeko Ondarearen Programaren esparruan pilatutako esperientziatik abiatuta, lanean jarraituko dugu, kultura-aniztasunaren ikuspegitik, trantsizio hirukoitzak afro-ondorengo gainean duen eraginari ekiten, bereziki Latinoamerikan eta Kariben. Eragindako populazioen kontsulta eta parte-hartze eraginkorrak sustatzen dituzten ekimenak bultzatuko ditugu, baita justiziarako sarbidea ere, eragilerik garrantzitsuenen (afro-ondorengo erakundeak, arrazako zuzentasunaren estatuko bulegoak eta nazioarteko lankidetzaren eragileak, besteak beste) arteko elkarriketarako guneak sustatuz. Afro-ondorengo bizi-kalitatea hobetzea bultzatuko dugu ere bai, arrazen arteko zuzentasuna eta genero-berdintasuna ikuspegi intersektional batetik bultzatzen duten politika publikoak babestuz eta arreta berezia jarriz afro-ondorengo emakume eta neskei modu zehatzean edo neurrigabeen eragiten dieten arrakaletan, baita haien ekimen propioak sendotzean arreta berezia jarriz ere, esparru politikoetan eta ekonomikoetan, tokikoetan eta nazioartekoetan eragiteko.*

### 3.1.2 Ikuspegi feminista eta genero-ikuspegia

Garapen jasangarriaren eta ekintza humanitarioaren aldeko Espainiako politikak feministak izango dira esplizituki, Garapen Jasangarriko eta Munduko Solidaritaterako Lankidetzari buruzko Legearen eta Kanpoko Politika Feministaren Gidan jasotako oinarrien ildotik. Horretarako, ikuspegi eraldatzailea ezarriko da. 1995eko Pekineko Plataformaren eta 1994ko Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Batzarraren estrategia bikoitza (zeharkakoa eta zehatza) aplikatzearen ondorioz duela 25 urtetik hona ikasitakoa oinarri hartuta, emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desparekotasunen jatorria eta arrazoiak iristeko ahaleginak areagotu eta azkartu nahi dira, desgaitasuneko, adineko, sexu-orientazioko eta abarreko arrazoiengatik arrazazko desparekotasunekin eta desparekotasun etniko eta kulturekin dituzten gurutzaketak kontuan hartuz.

Ikuspegi feminista genero-zeharkakotasuna maila guztietan indartzeko aurrerapausoetan gauzatu behar da: plangintzatik eta programazioz hasita, aurrekontu egokiekin, ezaguaren kudeaketara eta ebaluaziora iritsi arte. Era berean, plan honek barne hartzen dituen jardueren eremu guztietan emakumeak eta nes-

kak ahalduzko ekintza zehatzak txertatu behar dira, hala eskatzen duten herrialdeen eta erakunde kideen berdintasun-politiketarako babesa bermatuz eta, ondorioz, tokian tokiko emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin elkartasunak eta lana sustatuz eta indartuz. Zeharkako lehentasun hori indartu egiten da ikuspegi intersektional batetik giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin duen loturagatik, eta garapen jasangarriko lankidetzaren politikaren, ekintza humanitarioaren eta kanpoko ekintzako gainerako politiken eta tresnen arteko mailaz mailako koherentziako jardute batean aplikatu behar da. Beraz, beharrezkoa da ingurune egokia sortzea, erakunde feministek eta emakumeen eskubideak defendatzen dituzten erakundeek haien lana modu seguruan eta eraginkorrean egin dezaten, baita emakumeei eragiten dieten erabakietan erabateko parte-hartzea bermatzeko ere. Helburu horrekin, beharrezkoa izango da aldaketak bultzatzea Espainiako lankidetzako eragileen antolaketako kulturaren, eta sentsibilizazio eta prestakuntza handiagoan sakontzea genero-berdintasunaren eta lankidetzaren feministaren arloetan.

Gida Plana honen xedeari dagokionez, Espainiako lankidetzaren helburu izango da Espainiako lankidetzaren sistemako eragileen es-

ku-hartze berrien ekintzetako % 60ak gutxienez (eta EBak proposatzen duen % 85erako mailaz mailako hazkundean) genero-berdintasunean eta -zuzentasunean eragin positibo argia duten garapenerako emaitzak txertatzea. Gainera, Gida Plan honen indarraldiko lehen urtean, Espainiako lankidetzaren lankidetzaren feministarako estrategia bat landuko da.

### 3.1.3 Pobreziaren eta desparekotasunen aurkako borrokaren ikuspegia

1/2023 Legeak Espainiako lankidetzaren funtsezko oinarritzat jotzen du munduko desparekotasunen aurkako borroka, eta bere artikuluetan berresten du lehentasunezko helburuen eta jarduera-irizpideen artean duela giza garapen jasangarria sustatzea pobreziaren eta desparekotasunen alderdi guztien aurkako borrokaren bidez,

inor atzean utzi gabe. Ikuspegi hori bat dator gure estatuko, Europako (Europako garapenerako adostasuna) eta nazioarteko (2030 Agenda) arau-esparruaren oinarri zuzentzaileekin eta, zehazki, 1. eta 10. GJHeekin, baita Garapeneraren Laguntzarako Batzarraren (GLB) gomen-dioekin ere.

Praktikan, Espainiako lankidetzak normalean lantzen dituen jarduera gehienak hartuko ditu, eta koherentzia emango die duela zenbait gida planetatik ezarriz joan diren gainerako zeharkako ikuspegiei, lankidetzaren lehen legearen esparruan. Ikuspegi berriaren helburua izango da Espainiako lankidetzaren esku-hartze guztiek desparekotasunen aurkako borrokaren ikuspuntua txertatzea, gizarte barneratzaileak eta jasangarriak sustatuz eta



haurren pobrezia-ekin eta belaunaldien arteko txirotasunaren transmisioarekin amaitzeko xede indartuz.

Espainiako lankidetzak oinarri horizontal hori modu eraginkorrean zeharkakoa bihurtzeko tresnak garatuko ditu. Gainera, herrialde kideei lagunduko die haien barneko gaitasunak indartzen, errenta-mailetatik eta adierazle ekonomikoetatik haratago pobrezia-aren, ongizatearen eta desperekotasunen jarraipena egiten laguntzeko sistema estatistiko fidagarriak egiteko eta, mekanismo egokien bidez, tokiko biztanleek horiek eskuratzeko aukera izango dutela bermatzeko, gobernuek eta beste eragile garrantzitsu batzuek gizarte zibilaren eskarien eta beharren aurrean kontuak ematea sustatuz. Ildo horretatik, herrialde kideetako politika publikoek helburu horiek lehentasunen artean izateko eta alor horretan eraldaketa eraginkorrek sustatzeko beharrezko baliabideez hornitzeko lan egingo da.

### 3.1.4 Justizia klimatikoaren eta ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegia

Garapen jasangarrirako eta ekintza humanitarioko lankidetzaren politikak justizia klimatikoaren eta ingurumen-jasangarritasunaren alde egingo dute ezaugarri gisa, bioaniztasunaren babesa eta defentsa barne, 1/2023 Legearekin eta Espainiak nazioarteko foroetan hartutako konpromisoekin bat etorriz. Konpromisoek, berriz, 2030 Agendarekin bat egingo dute, eta azken horrek ingurumen-erronketarako (klima-aldaketa, itxaspeko bizitzaren eta lehorreko ekosistemen degradazioa, eta abar) zenbait helburu zehatz eta hainbat GJHtan hogeita lau ingurumen-xede ezartzen ditu, besteak beste, birziklapena, kutsadura, bizigarritasuna eta energia garbiak lantzen dituztenak.

Gizakion bizitzek eta jarduerak ingurumenarekiko duten mendekotasuna eta klima-aldaketak eta bioaniztasunaren galerak haietan duen eragina kontuan hartuta, Gida Plan honek justizia klimatikoaren eta ingurumen-jas-

sangarritasunaren ikuspegia sustatu egingo du zeharkako eta berariazko lehentasun gisa, Espainiako lankidetzak duela 30 urtetik orain arte lortutako ikaskuntzetatik abiatuta, planetaren eta pertsonen beharrei modu integrarean heltzeko beharretik abiatuta, eta ingurumenari eta gizarteari dagokienez jasangarria ez den giza garapena bideragarria ez izatearen uste osotik abiatuta. Klimaren eta bioaniztasunaren krisialdiak dira planetaren garapen jasangarrirako eta arrakastarako mehatxurik handiena; beraz, klimaren eta ingurumenaren inguruko helburuak eta gainerako GJHak batera landu behar dira.

Ingurumen osasuntsua giza eskubidetzat jotzeak ikuspegi hau indartzeko eta zabaltzeko beharra azpimarratzen du. Horregatik, eta garapen jasangarrirako politika publikoak koherenteak izan daitezkeen, Espainiako lankidetzaren eragile guztiek ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegia txertatu behar dute ekintzetan, eta bere eragin positiboa zaindu behar dute. Ikuspegi hori gauzatzeko, ingurumen-politikei eta klima-aldaketari buruzko politikari eta herrialde kideetako erakundeei lagundu behar zaie, ekarpen ekofeministak eta bizitzaren jasangarritasunekoak eta zaintzako politikak kontuan hartuz, eta harremanak sustatu behar dira tokiko erakundeekin eta lurra eta ingurumena babesten dituzten erakundeekin, arreta berezia jarritz erakunde indigenei eta afro-ondorengoen erakundeei eta ingurumenaren esparruan giza eskubideak babesten dituztenei, nazioarteko lankidetzan txertatu egiten direla indartuz.

Horrek esan nahi du ahalegin instituzionalak areagotu egin behar direla ingurumenaren arloan sentsibilizazio eta prestakuntza handiagoa lortzeko, eta ingurumena eta klima-aldaketa esku-hartze guztietan eta proiektuaren ziklo osoan eraginkortasunez txertatzeko egiturak, taldeak eta aurrekontuak indartu behar direla. Funtsezkoa da klima-politikak egiteko orduan herritarren parte-hartzea sustatzea, bereziki haurren, nerabeen eta gazteen. Ingurumenean eragina izan dezaketen garapeneko eta gizaldeko esku-hartze guztiek eragin hori ego-





kitzeko eta arintzeko edo orekatzeko planak izan beharko dituzte. Era berean, Espainiako lankidetzak karbono neutraltasuna lortzera jo beharko du bere jardueretan.

Gainera, eguneratu egingo dira Espainiako Lankidetzaren Jasangarritasuneko eta Ingurumeneko Estrategia eta AECID erakundearen gidak, ingurumena eta klima-aldaketa zeharkako bihurtzeko eta ingurumena gizaldekotzat ekintzan eta larrialdietan txertatzeko, eta arreta berezia jarriko zaie ingurumen-adierazleei, jardunbide egokiei eta betetze horretan aurrera egiten lagunduko duen ikasitakoari.

### 3.1.5 Kultura-aniztasunaren ikuspegia

Espainiako lankidetzaren aitzindaria izan da kultura garapen jasangarriko politiken funtsezko

osagai eta eragiletzat jotzen. Hurrenez hurrenko Gida Planek eta Kulturaren eta Garapenaren Estrategiak kultura-aniztasunaren aitortzea eta babesa nabarmendu izan dituzte jardueraren eremu guztietan zeharkako lehentasun gisa, modu irekian eta askean adierazi eta erakutsi ahal izateko.

Gida Plan honen esparruan, kultura lehentasuneko sektore gisa eta zeharkako ikuspegi gisa lantzen da aldi berean, beti giza eskubi-deetan oinarritutako ikuspegiarekin lotuta; azken batean, funtsezko bektore gisa hartzen da garapen jasangarria eta barneratzailea lortzeko, bai alderdi ekonomikoari dagokionez (kulturako eta sormeneko industriak, etab.) bai alderdi immaterialari eta herritartasun demokratikoak eta gizarte bidezkoagoak eta parte-hartzaileagoak eraikitzeko funtsezko zereginari dagokionez, baita gizarte-kohezioari dagokionez ere, kulturaren eta hizkunt-

zaren aniztasuna aitortuz eta haien garrantzia azpimarratuz.

Espainiako lankidetzaren kultura-aniztasuna zeharkako ikuspegi gisa landu behar da programa guztietan, plangintzako prozesuetatik hasita eta adierazpeneko, gauzatzeko eta ebaluazioko fase guztietara iritsi arte, gure gizarteetan kulturen arteko elkar-ulertzeak duen garrantzia guztiz txertatuz eta kulturaren izaera etorkizun jasangarrirako ezinbesteko ondasun publiko global gisa aitortuz, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) aitortzen duen bezala. Gainera, Gida Plan hau indarrean dagoen bitartean, Espainiako lankidetzaren kulturako eta garapeneko estrategia berria egingo da.

### 3.1.6 Bakea eraikitzeko ikuspegia

Bakea mantentzea eta eraikitzea da Espainiako kanpoko politikaren helburu nagusietako bat eta, horren barruan, garapen jasangarrirako eta munduko solidaritaterako lankidetzaren politikaren

helburua. Hori dela eta, Gida Plan honek gatazkak saihestera, horien konponbide baketsua sustatzera eta bakearen kultura eta eraikuntza bultzatzera zuzendutako ikuspegia barne hartzen du.

Espainiako lankidetzak eta gizaldekoko ekintzak lan egiten duen herrialde kide eta testuinguru askotan ikuspegi horrek, gainera, gizaldekoko ekintzaren, garapenaren eta bakearen arteko lotura hirukoitzaren ikuspuntua hartzen du. Testuinguru ahuletan dauden pertsonen beharrei eraginkortasunez erantzutea eta haien eskubi-deen defentsan aurrera egitea ezin da lortu hiru ikuspegiak (gizaldekoko, garapen jasangarrirako eta bakekoko) elkartu gabe. Lotura hirukoitzaren ikuspegiak beharrak eta nahiak landuko dituzten pertsonengan ardaztutako erantzun holistikoak sustatu behar ditu, zaugarritasunaren eta desparekotasunen egiturazko arrazoiei helduz, gatazkekiko sentikorra den ikuspegia ezarriz eta maila guztietan prebentziozko, kudeaketako eta suspertzeko gaitasuna indartuz. Ikuspegi horrek berekin dakar ekintza humanitarioaren, garapen jasangarrirako politiken eta bakearen eraikuntzaren arteko koordinazioa, osagarri-



tasuna eta koherentzia indartzea, jarduera-oinarriak eta eremu bakoitzaren balio erantsia errespetatuz.

Testuinguru ahul eta gatazkatsuetan, gainera, eremu zibikoa sendotzea funtsezkoa da berre-raikuntza, bakea eta adiskidetzaren sustatzeko. Inguru seguru eta egokia behar da gizarte zibilak aktiboki parte hartu ahal izateko bakearen erai-kuntzan, gatazken konponketetan eta krisialdi humanitarioen kudeaketan. Horrek esan nahi du adierazpeneko, elkartzeko eta biltze bakesuko askatasunak bermatu eta hainbat eragileren arteko elkarrizketa barneratzailea sustatu behar dela irtenbide jasangarri eta iraunkorrak lortzeko. Gatazka armatuek eragindako testuinguruetan, loturak gatazka osteko kohesioko eta adiskidetzaren sozialeko prozesu komunitarioak aurreikusi behar ditu, non gizatalde sozial guztiek, gazteria barne, parte hartuko duten, eta emakumeak protagonista izan behar dira gatazkek iraun bitartean eta gatazkaren ondoren erabakiak hartzeko guneetan, NBEko Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenaren eta ondorengo ebazpenen esparruan.

Ikuspegi hau testuinguru ahuletan garatuko da, non ekintza humanitaria eta garapen jasangarriko lankidetzaren batera biziko diren. Kasu horietan, bi esku-hartze mota horiek loturaren ikuspegiaren arabera garatuko dira. Testuinguru horietako elkartzeko esparruek, estrategiek edo plangintzarako tresnek ikuspegi horretatik egindako azterketa bat jasoko dute, baita jarduerako lehentasunen eta esku-hartze guztietan lotura zeharkakoa bihurtzera zuzendutako ekintzen adierazpen bat ere. Horregatik, talde geografikoen eta ekintza humanitarioko taldeen arteko lan-metodologiak zehaztuko dira esku-hartze guztietan loturaren ikuspegia behar bezala txertatzeko.

## 3.2. Sektoreko lehentasunak

Espainiako lankidetzak bidezko gizarte eta ekonomia jasangarri, barneratzaile eta erresilien-

teen alde lan egin nahi du, bere kideen eskutik eta estatuko lankidetzako eragile guztiekin batera. 2030 Agendak berezkoa duen eredu-aldaketa lortzeko beharrezkoak diren eraldaketak trantsizio edo eraldaketa hirukoitzera bidera daitezke. Trantsizio hirukoitzaren helburua da garapen jasangarria hiru oinarriko alderditan, elkarri lotuta eta elkarren mendekoak, txertatuko duen ikuspegi orokorra antolatzea. Ikuspegi horretatik, sektoreko lehentasunak identifikatu daitezke: trantsizio soziala, trantsizio ekologikoa eta trantsizio ekonomikoa, hain zuzen ere. Sektoreko lehentasun bakoitzerako jarduerak zehazten dira, eta horiek herrialdeen testuinguru aldakorrera eta behar zehatzetara egokitu ahal izango dira.

Beharrezkoa da bidezko eredu sozioekonomiko berde eta digital baterantz joatea, pertsonak eta bizitzaren eta planetaren zaintza garapen jasangarriko politika publikoen erdigunean jarriko dituen. Ezinbestekoa da txertatu behar diren eraldaketa handien eragin negatiboa murriztea eta etekinak zuzentasunez banatzea, inor atzean ez uzteko eta 2030 Agendak eta Parisko Hitzarmena proposatzen dituzten erronka handiei aurre egiteko. Arrakasta ekonomikoa gizartearen nahiz ingurumenaren ikuspegitik jasangarria den garapen-eredu baten bidez lortu behar da, eta eredu horren emaitzak gizarte osoaren onerako izango dira, ekoizpena dibertsifikatuz eta hura banatzeko eta birbanatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz, baita planeta babesteko eta ingurumen- eta gizarte-erronkei erantzuteko ere.

### 3.2.1 Trantsizio soziala

Trantsizio sozialak berekin dakar onartzea erronka globalek, hala nola klima-aldaketak, pobrezia eta desparekotasunek, herritarren ongizatea lehenetsiko duten erantzun bateratuak eta ekintza koordinatuak behar dituztela, genero-berdintasuna eta giza eskubideak bermatuz, eskubide zibil eta politikoak, osasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, kulturarako

eskubidea eta abar barne. Gida Plan honek garatzeko proposatzen dituen jarduera-ildoek hainbat sektore hartzen dituzte, eta honako hauen inguruan egituratzen dira: (i) gobernagarritasun demokratikoa; (ii) osasun globala eta osasun-sistemak; (iii) elikagaien segurtasuna eta gosearen aurkako borroka; (iv) hezkuntza zuzena, barneratzailea eta kalitatezkoa eta bizitza osoko prestakuntza; (v) genero-berdintasuna eta emakume, neska eta nerabe guztien ahalduntzea; eta (vi) kultura eta garapen jasangarria.

## GOBERNAGARRITASUN DEMOKRATIKOA: 16. GJHA



Gobernagarritasun demokratikoaren lehentasunak dira erakundeek kalitatea sustatzea honako irizpide hauekin: gardentasuna eta gobernu irekia, giza eskubideak eta askatasun zibilak errespetatzea, herritarren parte-hartzea indartzea, justizia eskuratzea, ustelkeriaren aurkako borroka, lurralde-garapena eta maila anitzeko gobernantza. Horrez gain, administrazio publikoen maila guztietan gaitasunak sortzea sustatu

nahi du, garapen barneratzaile eta jasangarria bultzatzeko. Guztia gure herrialdeak giza eskubideei buruzko sinatutako nazioarteko itunetan jasotako oinarri eta arauen esparruan egin nahi da.

Espainiako lankidetzak demokrazia parte-hartzailea eta ordezkagarria eta munduko aniztasun politikoa sustatzen jarraituko du. Teknologiaren eta komunikazioaren zeregina, eskubideen ikuspegitik, oinarritzakoa da garai berri honetan. AECID erakundeak Latinoamerikan eta Kariben ezarritako Demokrazia Programa bezalako ekimenen bitartez, sistema demokratiko barneratzaileagoak eraikitzearekin, elkarriketa sozialarekin (sindikatuak eta lankidetzak sindikalaren eginkizuna barne) eta zerga-justiziarekin lotutako ekimenak babestuko dira, hainbat eragile politikoren arteko elkarrekintzako bideak eta guneak sortuz eta nagusitasun berriak eratuz. Era berean, arreta berezia jarriko da adierazpeneko eta prentsako askatasuna sustatzeko eta defendatzeko eta giza eskubideen defendatzaileen babesa bermatzeko. Halaber, Espainiako lankidetzaren herrialde kideei laguntzen jarraituko da eta, bereziki, politika publikoak diseinatzen eta ezartzen dituzten erakundeek, erreformako planak, modernizazioa, digitalizazioa, funtzio publikoaren profesionalizazioa eta abar babestuz.

### Herritarren parte-hartzea eta eremu zibikoaren sustapena eta zaintza bultzatzea.

*Gizarte zibilaren aldeko lege- eta arau-inguruneak sortzea sustatuko da, baita elkartzeko, adierazpeneko eta biltze baketsuko askatasuna eta sindikatuak sortzeko eta askatasunez sindikatuko kide izateko eskubidea erabiltzea ere. Horretarako, funtsezkoa izango da herritarren parte-hartzea babestea, belaunaldien arteko ikuspegitik, eta gizarte zibil aktibo eta parte-hartzailea bultzatzea eta babestea, baita gizarte zibileko erakundeek arteko sareak eta harremanak sortzea eta indartzea ere, demokrazia, giza eskubideak, askatasunak eta zuzenbidezko estatua indartzeko. Eremu zibikoaren egoerari buruzko ikerketak eta azterketak ere sustatuko dira, erronkak eta aukerak identifikatzeko eta sustapenerako eta babeserako estrategia eraginkorrak diseinatzeko. Era berean, hezkuntza zibikoa eta balio demokratikoak txiki-txikitatik sustatuko dira, hezkuntza-erakundeak eta gizarte zibila herritar aktibo eta jakitunen prestakuntzan nahastuz. Halaber, eremu zibikoetan inklusioa eta berdintasuna sustatuko dira, emakumeen, baztertutako taldeen eta gutxiengoen parte-hartze zuzena ziurtatuz erabakiak hartzeko prozesuetan. Berdintasuneko*

*mekanismoak bultzatu eta indartuko dituzten ekintzak egingo dira, emakumeek, indigenek eta afro-ondorengoek botere politikoan berdintasuneko baldintzetan sartzeko eta erabakiak hartzeko eremuetan parte hartzeko.*

***Kalitatezko zerbitzu publiko gardenak kudeatuko dituzten gobernantza-sistema barneratzaileak eta ordezkagarriak sustatzea eta indartzea, gizarte-kohesioa sustatuz.***

*Administrazio publikoen ahalmenak indartuko dira kalitatezko zerbitzuak bermatzeko, informazio publikorako sarbidea errazteko eta kudeaketan gardentasuna sustatzeko, gobernuaren datuak eta erabakiak herritarrentzat, gazteria barne, eskuragarriak eta ulergarriak direla ziurtatuz, erakundeengan konfiantza sortuz eta gizarte-kohesioa sustatuz. Halaber, sektore publikoaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren sustatuko da politika publikoak egitean, ezartzean eta ebaluatzean, elkarrizketarako eta parte-hartze eraginkorrerako guneak bultzatuz eta gizarte bakoitzean adostasunak eta itun sozialak eraikiz. Herrialde kideek hasitako deszentralizazio prozesuak ere babestuko dira.*

***Erakundearen gaitasunak indartzea berdintasunaren, justiziarako sarbidearen eta giza eskubideen sustapenaren eta babesaren arloetan.***

*Berdintasunaren eta giza eskubideen arloetako legegintza-esparruak eta politika publikoak babesten jarraituko da, nazioarteko arau eta estandarretara homologagarriak izan daitezkeen. Halaber, giza eskubideen arloan egindako aurrerapenak ikuskatuko dituzten behatokiak abian jartzea edo indartzea sustatzen jarraituko da. Gainera, zerbitzu judizialak modu espezializatu, arin eta independentean ematea hobetzen saiatuko da, erregistro publikoen erabilera eta modernizazioa sustatuko da pertsonen eskubideen babesa eta aitorpena errazteko, eta gizakien salerosketaren aurkako borrokan lan egingo da.*

***Giza eskubideen defendatzaileen babesa.***

*Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta erakundeak, herri indigenen eta emakumeen erakundeak, gizarte- eta komunitate-buruak eta gizarte zibileko aktibistak tokian babesteko ekintzak egingo dira babes eta autobabes kolektiboko ikuspegietatik, segurtasuna bermatuz eta errepresioa edo intimidazioa saihestuz, programa bereziak bultzatuz edo dagoeneko dauden mekanismoak indartuz.*

***Bakea eta egonkortasun demokratikoa eraikitze prozesuak sustatzea.***

*Bakea eta adiskidetzaren soziala eraikitze prozesu parte-hartzaileak bultzatuko dira gobernantza mekanismo barneratzaileen eta gardenen bidez, bakearen kulturaren sustapenean oinarrituta. Krisialdiak eta gatazka armatuak saihestera, kudeatzera eta konpontzen laguntzera eta behar humanitarioei erantzutera bideratutako ekintzak babestuko dira. Gizartearen erresilientzia ere indartuko da arriskuen eta krisialdien aurrean, bake iraunkorra eta segurtasunaren gobernantza demokratiko ona eraikitze ekintza humanitarioen, garapenaren eta bakearen arteko lotura hirukoitzetik abiatuta.*

Biztanleria zibila babesteko ingurune aproposa sortzeko Nazio Batuen bakerako jarduerak egiten duten ahalegina indartzeko lan egingo da. Espainiako lankidetzak lanean jarraituko du gatazkak saihestean, bitartekaritzan eta indarkeria-mota guztiak murriztean, eta minak kentzearen arloko prestakuntzaren esparruan. Gatazka armatuko (Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenaren eta ondorengo ebazpen gehigarrien arabera, eta Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1820 Ebazpenaren eta ondorengo ebazpenen arabera) eta hondamendi naturaleko egoera batean dauden emakumeen eta nesken babesa azpimarratuko da, arreta berezia jarriz sexu-indarkeriaren aurrean duten zaugarritasunari. Gatazka armatuetan adingabeak babestea lehentasunezko gaia izango da, eta eragiteko lanekin jarraituko da gizaldeko nazioarteko zuzenbidea errespetatzen dadin eta laguntza humanitarioa modu jarraituan, murrizketarik gabe eta segurtasunez eskura dadin.

**Administrazio publikoetako laguntza hondamendien aurrean prebentzioa eta erantzun eraginkorra bermatzen eta pobrezian berriz erortzeko arriskuak murrizten. 1.3 xedea eta 1.5 xedea.**

Erakunde publikoak indartuko dira arriskuen kudeaketa egokia egin dezaten arriskuak kudeatzeko planen bitartez, oinarritzko tresnen diseinua babestuz, hala nola, krisialdiko egoeren aurrean erresilientzia sustatzeko eta herritarren artean pobrezian berriro erortzea saihesteko informazio-sistemak eta alerta goiztiarrekoko sistemak.

**Kultura-eskubideak indartzea eta babestea. 16.3 eta 16.7 xedekak.**

Herri indigenen eta afro-ondorengoen kultura-, politika- eta ekonomia-eskubideak aitortzea eta babestea sustatzen dituzten ekintzak bultzatuko dira, kulturarteko elkarriketa eta kultura-antiztasunarekiko eta haien mundu-ikuskerekiko eta gizarte-antolaketekiko errespetua sustatuz haien bizitza-planak eta beste tresna batzuk garatzearen bidez. Era berean, haien hizkuntza, kultura eta ohiturak errespetatzeko, zaintzeko eta babesteko ekimenak sustatuko dira, baita haien antzinako lurraldeak babestekoak eta aintzat hartzekoak eta lur horiek ustiatzeko eta ingurumenarekin harremanetan egoteko moduak ere.

**Gehikortasuna eta herritarren gizarte-babesa bermatuko duten zerga- eta soldata-politiken garapena indartzea. 10.4 xedea. 1.3 xedea.**

Administrazio publikoek zerga-sistema eragingarriak, eraginkorrak eta barneratzaileak kudeatzeko dituzten gaitasunak indartuko dira, eta zerga-administrazioak sendotzen jarraituko da informazio eta estatistika fiskalak izan ditzaten. Arau-esparruak hobetzeko eta ihesaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko nazioarteko zerga-koordinazioa eta -lankidetzak sustatuko dira, herrialde kideetan etxeko baliabideak sortzeko aukera hobetzeko eta kanpokotako finantza-mendekotasunaren maila murrizteko bide gisa.

**Herrialde kideetan migrazio-politika planifikatuak eta ongi kudeatuak egiten laguntzea. 10.7 xedea.**

*Migrazioa eta pertsonen mugikortasuna modu antolatuan, seguruan eta erregularrean egiten dela eta migratzaileen eskubideak eta segurtasuna guztiz errespetatu egiten direla bermatzeko, erakundeak indartzeko ekintzak egingo dira, haurrak babesteko politikekiko lotura indartuz haur migratzaileetara zuzendutako arreta sendotzeko, eta arreta berezia jarriko da bakarrik dauden adingabeen egoeran.*

**OSASUN GLOBALA ETA OSASUN-SISTEMAK: 3. GJHA**

Osasuna oinarrizko giza eskubidea da, baita ezinbesteko baldintza bat ere, hura gabe ez baitago garatzerik. COVID-19 gaixotasunak eragindako pandemiaren etorrerak agerian utzi zuen, are gehiago, ezinbestekoa dela mundu osoan osasun-sistema eta -zerbitzuetan inbertitzea, eta arlo horretako nazioarteko lankidetzaren indartu beharra dagoela. Osasun-estaldura unibertsalerako eta osasun-segurtasun globalerako aurrerapausoak txanpon beraren bi aurpegiak dira.

Globalizazioak are nabarmenago egin ditu osasun arloko desparekotasunak. Herrialde garatuetan, osasun-zerbitzuetan jakintza zientifiko aurreratuaren azken berritasunak erabiltzen dira, XXI. mendeko teknologia berriak, eta neurri handi batean lortu da kalitatezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea ziurtatzea ia biztanle guztiei, bikaintasuna lortuz pertsonen osasuna hobetzeko. Gu txien garatutako herrialdeetan, ordea, zailtasun handiak daude osasun-politikak eta -estrategiak ezartzeko eta gauzatzeko, osasun-zerbitzuek eta -unitateek funtzionatzeko eta kalitatea edukitzeko, eta aipatutako zerbitzuak eskuratzeko. Horrek desparekotasun handiak dakartza pertsonen osasunerako eta bizitza osasuntsurako duten eskubideaz gozatzeko orduan, eta egoera zaurgarrian jartzen ditu haurrak eta nerabeak.

Beste alde batetik, funtsezkoa izango da osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak betetzeko lan egitea, 2005etik Espainiako lankidetzaren

lehentasun esplizitua den 1994ko Kairoko ekintza-programa betez, baita 5. GJHko 5.3 xedea (Haurren ezkontza goiztiarra eta behartua eta emakumeen genitalen mutilazioa bezalako praktika kaltegarri guztiak desagerraraztea) eta 5.6 xedea (Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala eta ugalketa-eskubideak bermatzea, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Batzarraren ekintza-programari, Pekineko ekintza-plataformari eta azterketa-hitzaldien amaierako dokumentuei jarraituz) eraginkortasunez betetzeko ere.

Bizi garen mundu globalizatu eta elkarren mendekoan osasunaren arloko helburuak lortzeko, Espainiako lankidetzak munduko osasunaren esparruan lan egingo du lehentasunez, jarduera aldeaniztun, hitzartu eta solidarioen bidez, hala nola txertoei, sendagaiei edo osasunaren arloko teknologiarik buruzko ikerketak, inbertsioa giza baliabideetan, eta abar. Horrez gain, OMEren lidergoa eta zentraltasuna abiapuntutzat hartuta, munduko osasunaren antolaketa berria indartzen lagunduko du. Beste alde batetik, herrialde kide bakoitzeko estatuko osasun-sistema eta -zerbitzuak indartzeko aldebiko jarduerak gauzatuak ditu, osasun-estaldura unibertsalaren helburua eta 3. GJHaren gainerako xedek lortzeko. Lehentasuna emango zaie osasunerako eskubidea sustatzeko eta babesteko ekintzei, Lankidetzaren Kontseiluaren "Haurren eskubideak Espainiako lankidetzaren txertatzeko gakoak" izeneko esparru-dokumentuan hartutako konpromisoen ildotik.

Sektore honetan aurrera egiteko eta hura sendotzeko, Gida Plan hau indarrean dagoen bitartean munduko osasunerako estrategia bat egitea eta onartzea aurreikusi da.

### **Estatuetako osasun-sistemak eta -zerbitzuak indartzea. 3.8 xedea.**

Estatuetako osasun-sistemak eta -zerbitzuak indartuko dira, eta herritarren asistentziaren jarraitutasuna bermatuko da osasun publikoko arreta-mailetan; lehen mailako arretaren esparruan, komunitarioa, mentala eta ospitale-arreta espezializatua barne hartuko dira. Estatuetako osasunerako planak eta estrategiak txertatzea eta herritarrek kalitatezko osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera bultzatuko da. Herrialde kideen estatuko eta erakundeko ahalmena handitzen lagundu nahi da, prestakuntza mediko espezializatuaren eta antzeko programen bidez. Halaber, Espainiako osasun-sistemaren esparruan sortutako esperientziak eta jardunbide egokiak partekatuzko eta osasun-estaldura unibertsalean, prebentzioan eta osasun-zerbitzuen maila guztietan arretaren jarraitutasunean oinarritutako ereduak sustatzeko ekimenak egingo dira, eta ezagutza tekniko eta zientifikoa eta profesionalen etengabeko prestakuntza bultzatuko dira, ekintzak herrialde bakoitzaren behar eta egoeretara egokituz.

### **Osasun-sistemak indartzea osasun-larrialdien aurrean prest egoteko eta horiei erantzuteko. 3.8 eta 3.D xedek.**

Munduko osasunaren antolaketa berria indartzen lagunduko da, pandemiaren ondoren ikasitakoa kontuan hartuta, munduko osasunari eta osasun-segurtasunari balio erantsia emango dioten osasunaren arloko aldeaniztasunean oinarritutako ekimen globalen bidez, eta Osasunaren Mundu Erakundearen lidergoa eta zentraltasuna babestuz. Lanean jarraituko dugu Pandemiari buruzko Nazioarteko Ituna asmo handikoa izan dadin eta COVID-19 gaixotasunak eragindako pandemiaren ondorioz ikusitako erronkei erantzun diezaien, zaintza epidemiologikoa, ikerkuntza, funtsezko horniduretarako sarbide zuzena, osasun-kontraneurriak edo munduko ekoizpeneko eta banaketako ahalmena indartzea, hain zuzen ere. Europako HERA agentziaren (Osasun Larrialdien Aurrean Prest Egoteko eta Horiei Erantzuteko Agintaritza) garapena eta Afrikako, Latinoamerikako eta Kariibeko eta beste eskualde batzuetako antzeko beste sare batzuekin lotzea bultzatuko da.

### **Sexu- eta ugalketa-eskubideetarako eta -osasunerako sarbidea indartzea. 3.7 xedea, 5.3 eta 5.6 xedea.**

Emakumeen eta nesken sexu- eta ugalketa-eskubideak eta -osasuna bermatzeko lan egingo da, genero eta feminismoaren ikuspegitik sexu-aniztasuna eta LGBTI pertsonen sexu-eskubideak ere kontuan hartuz.

### **Funtsezko txertoak eta sendagaiak ikertzea, garatzea eta modu irisgarrian eskuratzea babestea, osasun-estaldura unibertsalari lagunduz. 3.B xedea.**

Nazioarteko komunitateak eremuan egiten dituen ahaleginak batzen dituzten ekimen aldeaniztuen, esaterako, Immunizaziorako Munduko Aliantzari (GAVI, ingelesez), babes estrategikoa emateko lan egingo da. Txertoei buruzko desinformazioaren aurka borrokatuko duten eta herritarrak sentikor bihurtzen lagunduko duten ekintzak sustatuko dira. Era berean, txertoak garatzeko edo horien estaldura zabaltzeko ikerketa-programak bultzatuko dira, txertoak herrialde bakoitzaren beharren arabera eskuragarriak eta arrazoizkoak izango direla ziurtatuz, eta funtsezko sendagaiak berritzeko eta eskuratzeko eredu eraginkorrago eta zuzenago bat sustatuko duten ekintzak gauzatuko dira.



## ELIKAGAIEN SEGURTASUNA ETA GOSEAREN AURKAKO BORROKA: 2. GJHA



Osasun-krisialdien ondorioek, gero eta baldintza klimatiko muturrekoagoek eta, batez ere, gatazken eta geroen ugaritzeak elikagaien eta nutrizioaren segurtasun-egoera maila larrietaraino hondatu dute munduan. Elikagaien segurtasunik eza bereziki larriagoa da gatazka-egoeretan dauden edo ingurune zaurgarrietan dauden populazioetan, baita uharteko inguruneetan ere. Horregatik, beharren ikuspegi bati jarraituz, elikagai-laguntzako programak zabalduko dira herritarrei banatzen eta elikagai eta mantenugai egokiak eta behar besteko kopuruan eskuratzen laguntzeko, eta lehentasuna emango zaie haurrei, haurdun dauden emakumeei eta bularreko haurrei, adinekoei eta egoera zaurgarrian dauden beste talde batzuei. Klima-aldaketaren ondorioek pobrezia murrizteko ahaleginak zailduko dituzte, eta elikagaien eta nutrizioaren segurtasunari erasango diote, eragina izango baitute elikagaien eskuragarritasunean eta sarbidean, baita elikagaien gordekinen egonkortasunari eta salneurrien hegakortasunari ere.

Espainiako lankidetzak tradizioz konpromisoa izan du munduko elikagaien eta nutrizioaren segurtasunaren alde, eta lehentasunez lan egingen jarraituko du goseari eta malnutrizio-mota guztiei azkena emateko: elikagaien segurtasunik ezaren aurka borrokatuz (kronikoa, iragankorra edo sasoikoa); obesitatearen, gehiegizko pisuaren eta desnutrizioaren aurka borrokatuz; eta elikadura egokirako giza eskubidea gauzatzen lagunduz, pertsona guztiei elikadura osasungarria, elikagarria eta nahikoa bermatuz eta ezkutuko desnutrizioa agerian jarritz. Arreta berezia jarriko zaie haurren desnutrizioaren aurkako borrokari eta bioaniztasunaren defentsak eta agroekologiaren babesak trantsizio hirukoitzari erantzuteko osagai egituratzaile gisa duten zereginari. Espainiako lankidetzaren sektorerako hurbiltzeko prozesua elikadurarako giza eskubidean oinarritzen da, eta erronka horren arrakastan aurrera egiteko, Gida Plan hau indarrean dagoen bitartean Espainiako lankidetzaren elikadurarako eskubidea – zero gosea estrategia berri bat egingo da. Elikadurarako Eskubidearen aldeko Espainiako Aliantza Parlamentarioarekin eta herrialde kideetan sortutako antzeko egiturekin lankidetzan jardungo da.

### **Desnutrizio kronikoaren aurka borrokatzea, elikadurarako sarbidea ziurtatzea eta elikagaien segurtasuna bermatzea. 2.1, 2.2 eta 2.4 xedeak.**

*Lan egingo da elikagaien segurtasunik eza kronikoaren, iragankorraren edo sasoikoaren aurka borrokatzeko, eta klima-aldaketaren aurrean iraunkorra den nekazaritza bultzatuko da, une honetan pertsona guztientzat elikagaien segurtasuna eta nutrizio orekatua bermatu ahal izateko eta etorkizuneko belaunaldiei elikagaien segurtasuna eta nutrizioa ematea ahalbidetuko duten ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-oinarriak arriskuan jar ez daitezen. Nekazaritzako elikagaien sistemek pertsona guztiek dieta jasagarriak jasotzeko aukera izatea erraztu beharko lukete. Haziak kontserbatzeko ekimenak sustatuko dira, elikagaien segurtasuna bermatzeko. Larrialdiko elikagai-laguntza emango da, herritarrei banatzen eta elikagai eta mantenugai egokiak eskuratzen laguntzeko.*

## **Elikadurarako giza eskubidea eta elikagaien segurtasunerako estatuko estrategiak babesten dituzten politika publikoak egiteko ahalmena indartzea. 2.1 xedea**

*Erakundeak elikagaien segurtasunerako estatuko estrategiak egiten indartzera eta elikadurarako giza eskubidea babesten duten politika publikoak sustatzera zuzendutako ekintzak bultzatuko dira. Nazioarteko zuzenbide humanitarioa gero eta gehiago urratzen ari den egoera honetan, gerrarako arma gisako gosearen aurka borrokatzen jarraituko da.*

### **HEZKUNTZA ZUZENA, BARNERATZAILA ETA KALITATEZKOA ETA BIZITZA OSOKO PRESTAKUNTZA: 4. GJHA**



COVID-19 gaixotasunak eragindako pandemiak mundu mailako hezkuntza-krisialdia sortu ondoren, Espainiako lankidetzak konpromisoa berritu du mundu guztiarentzat eta edozein testuingurutan kalitatezko hezkuntza barneratzailea eta zuzena bermatzen laguntzeko, 4. GJHak jasotzen duen bezala, oinarrizko giza eskubide eta aitortutako guztion ongi gisa, eta bakerako, tolerantziarako eta beste giza eskubide batzuk betetzeko oinarri gisa, baita 1/2023 Legearen 4.1.f. artikulua ere, "hezkuntzarako eskubide unibertsala kalitatearen, zuzentasunaren eta inklusioaren ikuspegitik" bermatzeko helburua duena. Hezkuntzaren arloko jarduerak testuingurura egokituko dira, eta oinarrizko hezkuntzaren, lanbide-heziketaren, unibertsita-

tearen eta hezkuntza espezializatuaren beharrei erantzun dizkiete, bizitza osoko ikastaldiaren ikuspegitik enplegua lortzeko aukerak zabaltzeko. Espainiako lankidetzak bat dator Incheon Adierazpenarekin, 4. Garapen Jasangarrirako Helburua gauzatzeko ekintza-esparruarekin, 2022ko irailaren Hezkuntza Eraldatzeko Goi-bileraren Adierazpenarekin eta Hezkuntzaren Etorkizunari buruzko Nazioarteko Batzordearen orientabideekin, eta 4. GJHaren Goi-mailako Zuzendaritza Batzordeari laguntzen jarraitzeko konpromisoari eusten dio.

Krisialdi humanitarioek hezkuntzarako eskubidean eragiten dieten neska-mutilak babesteko erabaki sendoarekin, Gida Plan honek guztiontzako hezkuntza barneratzailea, zuzena eta kalitatezkoa sustatuko du krisialdi humanitarioko esparruetan, bereziki gatazka, indarkeria eta segurtasunik gabeko testuinguruetan. Era berean, beketako programak eta nazioarteko mugikortasuna sustatuko dira, bai AECID erakundearen bidez, bai Carolina fundazioaren bidez.

### **Hezkuntza zuzena, barneratzailea eta kalitatezkoa eskuratzea. 4.1, 4.2, 4.5, 4.A, 4. B xedea.**

*Gure herrialde kideekin dugun elkarrizketa politikoan oinarritutako hezkuntza-sistemak hobetzera zuzendutako ekintzak sustatuko dira, ikasleen segurtasunari eta ongizateari laguntzen dieten hezkuntza-prozesuak bultzatzeko. Lanean jarraituko dugu oraindik dauden emakumeen eta nesken bereizkeriako arrakalak murrizten dituzten hezkuntza-sistema barneratzaileen kalitatea hobetzeko, parekidetasunerako ekintza positiboko mekanismoak ezarriz. Horrek esan nahi du genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista duten irakasleak indartzearen eta prestatzearen eta hezkuntza-sistemen gobernantzaren aldeko apustu sendoa egin behar dela.*

*Hezkuntza-bazterkeriari helduko zaio eta hezkuntzatik baztertuta dauden pertsonak identifikatuko dira, hala nola, neskak, emakumeak eta emakume nerabeak, desgaitasuna duten pertsonak*

edo LGTBI pertsonak. Gatazkak nagusi diren testuinguruetan, arreta berezia jarriko zaio haurren bazterkeriari.

Lanean jarraituko dugu eskola seguruen adierazpenerako atxikimendu berriak lortzeko eta dagoeneko atxiki diren herrialdeetako ekintza-planak betetzeko. Gainera, gure herrialde kideetako hezkuntza-sistemen pixkanakako eraldaketa digitala bultzatuko da, ikasleen eta irakasleen gaitasun digitalak hobetzearen bidez.

**Eskolan ez ezik bizitzan zehar ere gaitasunak eskuratzean oinarritutako hezkuntza-politikak eraikitzen laguntzea. 4.7 xedea.**

Adinekoei, herri indigenei eta gutxiengo kultural eta linguistikoei, landa-eremuetako ikasleei, herrigabeei, barneko desplazatuei eta errefuxiatuei zuzendutako programetan lan egingo da. Hezkuntza sexuala eta sozio-afektiboa indartzeko ekimenak bultzatuko dira, bereziki gazteekin, baita bakerako hezkuntza genero-ikuspegitik eta ikuspegi feministatik sustatzeko ekimenak ere.

**Prestakuntza tekniko, profesionala eta goi-mailakoa, ikasleentzako beken bidez. 4. B xedea.**

Lehenengo lan-esperientzia izan nahi duten estatuko ikasleen eta migratzaileen prestakuntza integralean laguntzeko ekimenak garatuko dira, ekintzailetzarako bide berriak sortuz. Atzerriko ikasleak gaitzen ere lagunduko da gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakatsiz, garapen pertsonal eta profesionalerako tresna gisa.

**Enplegu eta lan duinerako sarbidea ahalbidetzen duen hezkuntza barneratzaile, tekniko eta profesionala lortzea. 4.3, 4.4 eta 4.5 xedek.**

Lanbide-heziketa eta Espainiako lankidetzaren lantegi-eskolak eta antzeko tresnak bultzatuko dira, eta sektore pribatuarekin lankidetzan arituko da hezkuntzaren eta enpleguaren arteko trantsizioan funtsezko kide gisa, kalitatezko enpleguak eta etengabeko prestakuntza lortzeko aukerak sortu nahian.

**Kalitatezko hezkuntza barneratzailea eta unibertsitarioa sustatzea eta unibertsitateen arteko ezagutzaren trukea erraztea. 4.3, 4.5, 4.C eta 12. A xedek**


Herrialde kideetako profesionalen etengabeko prestakuntzarako unibertsitateko goi-mailako ikasketak eta graduondoko hezkuntza eskuratzen lagunduko da, bereziki sektore publikoan lan egiten duten profesionaletarako.. Espainiako eta atzerriko ikerketa-zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzan aritzea sustatuko da, ikasleak eta langile akademikoak eta akademikoak ez direnak nazioartean mugitzeko eta garapenerako lankidetzaren unibertsitarioko proiektuak egiteko, lankidetzaren unibertsitarioko eta zientifikoko sare berriak eratzeke eta ezaguera elkarren artean trukatzeko. Era berean, hezkuntza-sistemetan gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasten duten irakasleen gaitasunak indartuko dira, eleaniztasuna sustatzeko.

### Garapen jasangarrirako eta herritartasun globalerako hezkuntza. 4.7 xedea.

Sentsibilizazioko kanpainak eta ekintzak bultzatuko dira, herritarrak garapen jasangarriaren eta solidaritate globalaren alde nahasten eta jarduten lagunduko duten estatuko eta nazioarteko ildoetan ezarritako errefortzu positiboekin, kulturaren eta kirolaren bidez. Halaber, tokiko eta nazioarteko boluntariotzako programak, sentsibilizazioko programak, bidezko merkataritzako praktikak eta sektore pribatuko enpresa eta erakundeekin adostasunak sustatuko dira, bidezko merkataritzaren oinarriak sustatzeko eta bidezko merkataritza-praktika jasangarriak hartzeko. Era berean, herrialde kideetan eragina izango duten klima-aldaketari buruzko hezkuntzako eta sentsibilizazioko ekimenak bultzatuko dira.

Gida Plan hau indarrean dagoen bitartean, egungo garapenerako hezkuntzaren estrategia ebaluatu ondoren, Espainiako lankidetzaren garapen jasangarrirako eta herritartasun globalerako hezkuntzaren estrategia berria egingo da.

#### GENERO-BERDINTASUNA ETA EMAKUME, NESKA ETA NERABE GUZTIEN AHALDUNTZEA: 3., 5., 10. ETA 16. GJHAK



Genero-ikuspegia zeharka ezartzearekin batera, Espainiako lankidetzak, lankidetzak feminista den aldetik, genero-berdintasuna lehen-tasunezko sektoretzat jotzen du, Pekineko Adierazpenak eta Plataformak proposatutako zeharkako eta ahalduntzeko ikuspegi bikoitza betez. Esparru honetan lan egiteko, Espainiako lankidetzak Espainian dauden berdintasuneko legeetan eta planetan oinarritzen da, Espainiako lankidetzaren Genero eta Garapenerako Estrategiatik abiatuta garatutako sustapen guztia airtortzen du, eta nazioarteko esparru eta konpromisoetan txertatzen da, Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko

Batzarrean (CEDAW, ingelesezko sigletan) derri gorrez bete behar den nazioarteko hitzarmen gisa, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Batzarrean sexu- eta ugalketa-eskubideak giza eskubidetzat jotzeari dagokionez, eta emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenean eta ondorengoetan, baita EBeko Genero-berdintasunerako eta Kanpoko Ekintzan Emakumeak Ahalduntzeko Ekintza Planean ere (GAP III, ingelesezko sigletan). Beste alde batetik, bere gain hartzen ditu gizaldero ekintzaren eremuko hitzarmen handi guztiak generoari eta emakume, neska eta emakume nerabe guztien aurkako indarkeriari dagokienez, 2019-2026 aldirako Espainiako lankidetzaren Ekintza Humanitarioaren Estrategiak islatzen duen bezala. Estrategia horretan, lankidetzak feminista-ren gai-zerrendaren esparruan, ekintza humanitarioan genero-, adin- eta aniztasun-ikuspegia modu eraginkorrean txertatzeko helburuak eta emaitzak biltzen dira.

Hori lortzeko, indartu egingo dira bai programa-zioko tresnak, bai generoaren arlokoak diren bi aldeko eta alde anitzeko tresnak, bai 30 urtetik gorako denboran Espainiako lankidetzaren ikuspegi feminista batetik garapen jasangarrirako lankidetzako genero-ikuspegiaren esparruan aurrera egindako eta sendotutako jarraipenerako, ebaluaziorako eta ezagutzaren kudeaketarako

mekanismoak, munduan dauden emakumeen eta nesken aurkako bereizkeria-mota guztiei azkena ematen laguntzeko helburuarekin, eta emakumeek herritartasun guztiz bizi ahal izateko giza eskubideak betetzen lortzeko helburu orokorarekin, horixe baita biderik onena pobrezia eta desparekotasunak desagerrarazteko, kontuan izanda interseksionalitate ugari daudela eta horiek, askotan, gizarte-, politika- eta ekonomia-bazterketako modurik okerrenetan

jartzen dituztela, eta ikuspegi feminista duen garapen jasangarrirantz aurrera egiteko.

Espainiako lankidetzaren ikuspegi feminista finkatzeko eta genero-berdintasuna eta giza eskubideak bermatuko dituen trantsizio soziala lortzeko helburua hurbiltzeko, Gida Plan honen indarraldiko lehen urtean Espainiako lankidetzaren lankidetzaren feministarako estrategia berria egin eta onartuko da.

**Genero-indarkeriako mota guztien aurka borrokatzea eta emakumeen, nesken eta emakume nerabeen eskubideak bermatzeko legegintza-esparruak garatzea. 5.1, 5.2, 16.1 eta 16.2 xedea.**

*Genero-indarkeriaren eta indarkeria bikarioaren arloko sentsibilizazioa eta prebentzioa sustatuko dira txiki-txikitatik; horretarako, biktimei laguntzeko sareak garatuko dira, haien eskubideak bermatuko dituzten legegintza-esparruak garatu eta ezarriko dira, eta arlo horretan lan egiten duten emakumeen eta gazteriaren tokiko erakundeak eta kolektibo feministak babestuko dira. Halaber, emakume, neska eta emakume nerabeen salerosketaren aurkako borroka nabarmenduko da, bereziki sexu-esplotazioa helburu duena. Horrez gain, lan munduko indarkeria, gehiegikeria, laneko jazarpen eta sexu-jazarpenaren aurkako ekintzak babestuko dira.*

*Gizaldekoko ekintzaren genero-ikuspegia indartuko da, baita bakea eraikitzeko prozesuetan emakumeak ahalduntzeko ekintza zehatzak ere. Enfasia jarriko da alerta goiztiarreko sistemen garapenean, babesean eta gizaldekoko ekintzan gatazketan eta hondamendietan, eta genero- eta adin-ikuspegia txertatzean justizia trantsizionaleko, armagabetzeko, mobilizazioko eta birgizarteratzeko prozesuetan. Arreta berezia jarriko da emakumeen, emakume nerabeen eta nesken laguntzako eta babeseko beharretan, hala nola gatazka armatuko egoeretan sexu-indarkeriak dakartzanetan, eta beste gizatalde zaugarri batzuek planteatzen dituztenetan, bereziki haurrek eta nerabeek eta desgaitasuna duten pertsonak, ikuspegi interseksional batetik, baita haien autonomian eta erantzuteko gaitasunean ere, haien bizibideak eta gizartean duten eginkizuna berreskura ditzaten. Halaber, emakume, neska eta emakume nerabeen salerosketaren aurkako borroka nabarmenduko da, bereziki sexu-esplotazioa helburu duena, larrialdiko eta gatazkako testuinguruetan.*

**Emakumeen eskubide zibil eta politikoak eta benetako parte-hartze eraginkorra sustatzea. 5.1 xedea. 5.5 xedea.**

*Berdintasun formalerako (arauak eta legeak) eta benetako berdintasunerako (berdintasuneko estatuko mekanismoak eta kudeaketako programak eta ekimenak) politika publikoak indartuko dira, baita emakume, neska eta emakume nerabe guztien parte-hartze politikoaren sustapena ere, mundu, eskualdeko, estatuko eta tokiko mailan. Lan egingo da emakume, neska eta emaku-*

me nerabe guztiek justizia-sistamarako sarbidea izateko, sistema horiek maila guztietan hobetzen laguntzeko, eta emakumeen ahalduntzea eta lidergoa sustatzeko elkarrizketa sozial eta ekonomikorako eragile gisa, eta adostasunak indartzeko eskubideen, lurraldeen eta ingurumenaren defendatzaile gisa, arreta berezia jarriz emakumeen eta gazteriaren tokiko erakundeak eta kolektibo feministak sendotzean. Era berean, emakumeen erakundeek eta erakunde feministek finantzaketa eskuratzea sustatuko da, bitarteko erakundeetarako laguntza bezalako mekanismoen bidez.

**Emakume, neska eta emakume nerabe guztien sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzea eta babestea eta ohitura kaltegarrien aurka borrokatzea. 5.3 eta 5.6 xedeak.**

Ohitura kaltegarriak desagerrarazteko ekimen, programa eta proiektuak sustatuko dira, hala nola nesken ezkontza goiztiarra eta behartua eta emakumeen genitalen mutilazioa. Emakume, neska eta emakume nerabe guztien sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzea eta babestea bilatuko da, sexu- eta ugalketa-osasunaren arreta zerbitzuetara sarbide unibertsala izateko eta eskubide horiek bermatzeko. Horretarako, sexu-aniztasunaren alde eta sexu- eta ugalketa-eskubideen alde lan egiten duten eskualdeko, estatuko eta tokiko emakumeen eta gazteriaren erakundeei eta kolektibo feministei lagunduko zaie.

**Zaintzako gizarteen, politiken eta ekonomiaren lorpenean aurrera egitea, eta emakumeen eskubide ekonomikoak eta lanekoak sustatzea, garapen jasangarria lortzeko. 5.1, 5.4 eta 5.A xedeak.**

Sektore feminizatueta eskubide ekonomikoak eta lanekoak sustatzeko eta zaintzaren sektorean enplegu duina sortzea sustatzeko ekintzak egingo dira, garapen jasangarrirako ekonomia feministaren arabera, arreta berezia jarriz ekoizpeneko ekimeneen bultzadan eta emakumeen enpleguko eta ekintzaitzako aukeretan eta landa-garapenean, emakumeek lurra eta ekoizpeneko baliabideak erabiltzean, eskuratzean eta edukitzean eta jasangarritasunean eta eskubideetan oinarritutako kredituak eskuratzean, ekonomia informalean, ekonomia berdean eta trantsizio ekologikorako ekonomian lan egiten dutenak barne eta, oro har, berdintasuna bermatzean ekonomia formalean enplegu duina lortzeko eta bertan irauteko ulean.

Ekonomia informalean emakumeak ikusaraztea eta ahalduntzea bultzatuko da, baita etxeko eta zaintzako lan guztiak ere, ordainduak zein ordaindu gabeak, horiek formalizatzeko, balioesteko eta duintzeko. Halaber, ordaindu gabeko zaintzako lana aitortzeko, murrizteko eta birbanatzeko ekintzak sustatuko dira, adin goiztiarretik emakumeei eta neskei neurrigabe eragiten baitie, eta maskulinitasun positibo berrietan prestatzeko mugimenduak sustatuko dira.

Generoa eta kontu sateliteak kontuan hartzen dituzten aurrekontuetan oinarritutako ekimenak babestuko dira eskualdeko, estatuko eta tokiko aurrekontu publikoetan, eta zaintzako politiken eta ekonomiaren ikuspegian oinarritutako hautazko programen jardunbide egokiei lotutako eza-gutzaren ikerketa eta kudeaketa sustatuko da.

**KULTURA ETA GARAPENA: 11. GJHA**

2022an Mexikon ospatutako Mondiacult Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Batzarrean UNESCO erakundeko kide diren estatuek aho batez onartu zuten amaierako adierazpen bat, non kultura munduko ondasun publikotzat jotzen zela berresten zen lehen aldiz eta datozen urteetarako kultura-politika publikoetarako munduko ibilbide-orri bat zehazten zen. Hori kontuan hartuta, kulturari norabide bikoitzean heldu behar zaio: alde batetik, giza garapenaren arlo guztietan eragiten duen zeharkako ikuspegi gisa eta, bestetik, esku hartzeko sektore zehatz gisa. Espainiako lankidetzak ikuspegi bikoitz horretatik abiatuta kultura eta garapen jasangarriaren lan egiten jarraituko du eta, horretarako, eskubide kulturalen sustapenean (sarbidea, parte-hartzea, askatasun intelektuala eta sortzailea), kultura-industriaren sustapenean berrikuntza sozialaren eta enplegu duinaren eragile gisa, gizarte zibilaren parte-hartze eraginkorrean eragina duten kulturaren arloko politika publikoen sustapenean, eta kulturaren ikuspegitik nazioarteko gai zabalagoen (inklusioa, genero-berdintasuna, gobernantza parte-hartzailea, kulturarteko

elkarrizketa, gizarte-kohesioa, hiri jasangarriak, ingurumena edo klima-aldaketaren aurkako borroka) inguruko hausnarketarako ekarpenaren sustapenean duen esperientziaren nazioarteko aitorpenaz baliatzen jarraituko du.

Sektoreko lanaren barruan, arreta berezia jarriko da kultura-ondarean, bai materialean, bai immaterialean. Izan ere, ondare horrek lurraldeen eta udalerrien garapen jasangarriaren duen eragina 11. GJHan lantzen da berariaz. Arlo honek ibilbide luzea du Espainiako lankidetzan, eta balioa azpimarratzeko eta kudeaketa teknikoko eta parte-hartzaileko esku-hartzeak sustatu izan ditu, beti eremu publiko barneratzaileak, seguruak, erresilienteak, jasangarriak eta konektatuak berreskuratzeko Espainiako lankidetzaren estrategien esparruan.

Espainiako lankidetzak 2007ko kultura eta garapeneko strategiaren eguneraketa bultzatuko du, nazioarteko garapeneko agendetara egokitze eta Mondiacult Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Batzarrean jasotako agindua betetzeko. Ildo horretatik, egungo programak eta tresnak sendotuko dira eta ekintza berritzaile hartuko dira Espainiako lankidetzak garapen jasangarriarako lankidetzaren eta kultura-ekintzaren abangoardiako erreferentzia izaten jarrai dezan.

**Historia- eta kultura-ondarearen babesa, birgaikuntza eta berreskurapena bultzatzea. 11.4 xedea.**

*Garapenerako ondarearen programa hirietan eta lurraldeetan lan egiteko tresna eraginkor gisa babesten jarraituko dugu. Garrantzi berezia emango zaio eremu publikoa osorik berreskuratzeari. Era berean, AECID erakundearen kultura-zentroen sareak Espainiako lankidetzaren funtsezko aktibo gisa egiten duen lanari eutsiko zaio eta, horretarako, lankidetzako kultura-programak eta proiektuak garatuko dira tokiko alderdiekin (publikoak, pribatuak eta gizarte zibilekoak) etengabe elkarrizketan, garapen jasangarriaren helburuak lortzeko. Kultura-eskubideen garapen osoari leku emango dioten gero eta barneratzaileagoak eta jasangarriagoak diren eremuen eraikuntza sakontzea da apustua. Era berean, kultura-sektoreko prestakuntzarako eta gaikuntzarako programak bultzatzen jarraituko da, ACERCA programa barne, politika publikoak indartzeko, gizarte zibilari laguntzeko eta GJHak lortzen laguntzeko tresna arina diren aldetik.*

### 3.2.2 Trantsizio ekologikoa

Gaur egun, gizateriaren historian inoiz izan ez diren ingurumeneko krisialdiak eta erronkak gainjartzen ari dira munduan. Hasteko, gure planetaren biziraupena bera arriskuan jartzen duten klima-larrialdia eta bioaniztasunaren galera daude. Ingurumen osasungarria garapen jasangarrirako baldintza bat da; izan ere, ordezkaezinak, doakoak eta gizakien biziraupenerako beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak hornitzen ditu, bereziki pertsona txiroenei edo egoera zaurgarrienean daudenei, zuzenean horren mende daudenak. Errealitate horren ondorioz, Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 2022ko uztailean, ingurumen garbi, osasuntsu eta jasangarria giza eskubide gisa onartu zuen.

Alde batetik ingurumenaren degradazioak dituen ondorio sozioekonomikoen aurrean (uretan, lurrian, ozeanoetan, lurreko eta itsasoko bioaniztasunaren galeran, kutsaduran eta klima-aldaketan hauteman daitezkeenak) eta,

bestetik, ingurunea hobetuz oparotasun ekonomikoa eta kalitatezko enpleguak sortzeko aukeren aurrean, Gida Plan honek, Europar Batasuneko Itun Berdearen ildotik, bidezko trantsizio ekologikoa sustatzen du. Apustu horren bidez, irmoki egin behar da aurrera karbono neutraltasunerantz eta Parisko Hitzarmenaren helburuak betetzerantz, ingurumena errespetatzen duten, desparekotasunak areagotzen ez dituzten eta deskarbonizazioaren ahaleginak modu bidezkoan banatzen dituzten aukera sozioekonomikoen bidez, besteak beste, produkzio-sektoreei lagunduz (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, akuikultura, etab.), ingurumen osasuntsuarekin batera, enplegu duina sortzea eta bizitzaren baldintzak duin egitea lehenetsiz, arriskuak murriztuz eta erresilientzia areagotuz, inor atzean utzi gabe.

Beharrezkoa da trantsizio horri justiziaren eta zuzentasunaren ikuspegitik heldzea. Trantsizio horrek garapeneko eredu jasanezinen aurka egitea dakar, baita ingurumena errespetatzen





duen ohiturak eta bioaniztasunaren babesaren sustatzea eta indigenen eta tokiko jakintzak balioestea ere. Era berean, emakumeen, herri indigenen eta afro-ondorengoen komunitateen parte-hartze eraginkor eta esanguratsua ziurtatu nahi du erabakiak hartzean eta baliabide naturalen kontserbazioarekin eta bioaniztasunaren babesarekin bateragarriak diren garapeneko eredu jasagarriak eraikitzean, genero-berdintasuna eta gizarte- eta ingurumen-justizia sustatuz.

Gobernuz kanpoko erakundeek eta gizarte osoak funtsezko zeregina dute klima-aldaketaren aurkako borrokan, bai moldatzeari dagokionez, bai arintzeari dagokionez. Oinarrizkoa da herritarren parte-hartzea, gobernantza barneratzailea eta estatuz kanpoko eragileen mobilizazioa sustatzea erabakiak hartzeko, eta ekintza klimatikoak ezartzea. Gainera, eremu zibikoak indartzeak gardentasuna, kontuak ematea eta informazioa eskuratzea bermatzen ditu, eta horiek funtsezko osagaiak dira klima-aldaketari modu eraginkor eta bidezkoan heltzeko.

Bidezko trantsizio ekologikoa maila globalean eta herrialde kideetan sustatzea izango da Espainiako lankidetzak gehien jarraituko duen politiketako bat. Horretarako, herrialde kideetako administrazio publikoen gaitasunak indartuko dira eta eskuratutako ezagutza eta esperientzia erabiliko dira herrialde horietako garapeneko planen zerbitzura dauden adostasunak sortzeko. Jarduera-ildoek hainbat produkzio-sektore hartzen dituzte, eta honako hauen inguruan egituratzen dira: (i) klima-aldaketaren aurkako borroka, arintzeko eta horretara moldatzeko; (ii) energia garbiak eskuratzeko aukera; (iii) bioaniztasunaren babesaren eta sustapena; eta (iv) urarekiko eta saneamenduetarako giza eskubideak. Sektorerik horien arteko sinergiak sustatuko dira.

Trantsizio ekologikorako lana eta ikuspegi indartzeko eta eguneratzeko, Gida Plan hau indarrean dagoen bitartean Espainiako lankidetzaren ingurumenaren eta klima-aldaketaren estrategia berri bat egingo da. Horretarako, indarrean dagoen strategiaren ebaluazioa kon-

tuan hartu beharko da, lortutako ondorioetan oinarrituta aberastu eta emaitzak optimizatu ahal izateko.

## KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA: MOLDATZEA ETA ARINTZEA: 13. GJHA



Klima-aldaketak eragindako berotze globalak ekosistemaren, gizartearen eta ekonomiaren distortsioak eragiten ditu, eta zuzeneko ondorioak ditu biziraupenerako funtsezkoak diren alderdietan, hala nola nekazaritza- eta arrantza-ekoizpean eta uraren eskuragarritasunean; krisialdien ondorioak larriagotzen ditu eta migrazioen, pobreziaren eta gizaldeko operazioen eta larrialdien neurria handitzen du. Egoera hori ez da bateragarria nazioarteko komunitateak ezarritako helburuarekin, hau da, industriaurreko mailekin alderatuta tenperaturak 1,5 °C baino gehiago ez igoztearekin. Horrek bi kontu eztabaidaekin eta erabakigarri eragiten ditu: lehenik, klima-aldaketaren ondorioekiko moldatzea eta erresilientzia beharrezkoak direla garapeneko, berdintasuneko eta ongizateko estandar globalei eusteko; bigarrenik, deskarbonizazioarekiko konpromisoak eraginkortasuna areagotuko duten mekanismoak aurkitu behar dituela klima-neutraltasunera hurbiltzeko.

Espainiak konpromiso argia du, bai politikoki, bai juridikoki, klima-aldaketa arintzeko eta horretara moldatzeko prozesuak babesteko baliabideak mugiarazteko, arreta berezia jarriz haren aurrean ahulenak diren eta berotegi-efektuko gas gutxien isurtzen duten garatzeko bidean dauden herrialdeetan, haien erresilientzia handitzeko, hondamendien arriskuak murrizteko eta haiei erantzuteko sistemak hobetzeko, eta eremu horretan berrikuntza teknologikoa, plangintza eta gaitasunen sorrera bultzatzeko. Espainiak konpromisoa hartu du 2025. urterako klima-finantzaketaren maila % 50ean handitzeko. Espainiako GLOean aldi horretarako

aurreikusitako igoeraren zati batek Espainiako lankidetzaren herrialde kideek klima-justiziaren ikuspegitik arintzearen eta moldatzearen arloan egiten dituzten ahaleginak babestu behar ditu, klima-aldaketaren aurrean pertsona ahulenek dituzten beharrei helduz. Klima-aldaketa gure garaiko gizarteko, belaunaldiartekoko eta generoko bidegabekeriarik handiena da. Gaur egungo haur, nerabe eta gazteek elkarrekin bizi beharko dute biharko egunean haien inguruneetan gero eta eraginik larriagoak eta luzeagoak dituztela.

Horiek horrela, nazioarteko eta estatuko klimaren gai-zerrendarekin eta Hondamendien Arriskuak Murrizteko Sendaiko Ekintza Esparruarekin bat etorritik, Espainiako lankidetzak lehentasuna ematen dio klima-aldaketaren eta bere ondorioen aurkako borrokari, kontuan hartuz hartutako finantzaren arloko konpromisoak eta eremu sozial eta ekonomikoekin eta Espainiako lankidetzarako estrategikoak diren

beste sektore batzuekin duten lotura estua. Hala, Espainiako lankidetzak klima-justiziaren ikuspegia sustatuko du, Espainiako GLOa berdeagoa sustatuz eta herrialde kideei klima-finantzaketari esker klima-aldaketaren ondorioetara moldatzen eta ekonomia eta gizarte deskarbonizatueterako trantsizio ekologikoa egiten lagun diezaien. Arlo humanitarioan, gizaldeko ekintzaren eta ekintza klimatikoaren arteko sinergia bilatuko da, ekintza humanitarioaren eta garapen jasangarriaren arteko loturaren ikuspegiarekin eta prebentziozko ikuspegiarekin lan eginez. Klimara moldatzeko eta hori arintzeko ekintzak tokiko esparrutik zuzentzen direla bermatuko da, bereziki emakumeen eta gazteen erakundeetatik, funtsezko eragileak baitira larrialdietan eta larrialdien ondoren erantzuteko. Haien lidergoa funtsezkoa da klima-aldaketarekiko erresilientzia garatzeko, baita klimarekin zerikusia duten hondamendien ondorioak arintzeko eta horien aurrean suspertzeko ere.

**Erresilientzia kudeatzea eta erakitzea eta klima-arriskuen aurrean moldatzeko ahaleginetan laguntzea. 13.1, 13.2 eta 13.3 xedeak.**

*Klima-aldaketaren ondorio negatiboak arintzeko eta hondamendien arriskura egokitzea eta hori murriztea sustatzeko sistema naturalak (naturaren oinarritutako irtenbideak) erabiltzen dituzten ekintzak babestuko dira. Basamortutzearen aurkako borroka eta muturreko fenomenoaren aurrean erresilientziako ekintzak sustatuko dira, baita degradatutako ekosistemak zaintzea eta berritzea ere, arreta berezia jarritz lurzoruari eta urari eta alerta goiztiarreko sistemak sustatzeko eta indartzeko beharri.*

*Klima-aldaketara moldatzeko eta hori arintzeko ekintzak tokiko esparrutik zuzentzen direla bermatuko da, batez ere emakumeen eta gazteen erakundearen parte-hartzearekin, erantzuteko egin-kizun garrantzitsua baitute. Era berean, herrialde kideetan klima-aldaketari buruzko hezkuntzako eta sentsibilizazioko ekimenak sustatuko dira.*

**Herrialde kideei klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politikak eta estrategiak egiten laguntzea, arintzea azpimarratuz. 13.2, 13.3 eta 13.B xedeak.**

*Herrialdeei klima-aldaketaren aurkako plangintza eta kudeaketa eraginkorra egiteko aukera ematen dizkieten erakundeak indartzeko ekimenak bultzatuko dira, hondamendien arriskuak prebenitzeko eta arintzeko zaugarrienen beharrak kontuan hartuta. Herritarrei kontuak emateko ekintzak eta klima-politiken gardentasuna sustatuko dira.*

## Klima-aldaketaren aurkako borrokan nazioartean hartutako konpromisoak abian jartzea. 13.A xedea.

*Klima-aldaketaren aurka nazioartean hartutako konpromisoen plangintzaren eta jarraipenaren esparruan herrialde kideetako erakundeak indartzera bideratutako ekintzak gauzatuko dira. Hala ere, estatu mailan zehaztutako ekarpenak egiten laguntzen jarraituko da. Horietan klima-aldaketa arintzeko eta horretara moldatzeko beharrak eta lehentasunak islatzen dira, haien garapen jasangarrirako planen eta estrategien esparruan.*

### ENERGIA GARBIAK ESKURATZEKO AUKERA: 7. GJHA



Energia eskuratzeko funtsezko faktorea da garapen berneratzaile eta jasangarri baterako. Hori dela eta, garapenerako nazioarteko lankidetzaren gai-zerrendaren ardatz nagusietako bat energia garbiko iturrietarako sarbide unibertsala, arrazoizkoa eta fidagarria bermatzeko ahalegina da. Garapenerako lankidetzaren klima-aldaketaren arloko 2021eko Paris Hitzarmenarekin bat egiteko ikuspegi berri bati buruzko ELGaren GLBaren Adierazpenak herrialde kideei berotegi-efektuko gasen zero isurietarako trantsizioetan laguntzeko konpromisoa jasotzen du, estatu mailan zehaztutako ekarpenetan adierazi diren beharrak eta konpromisoak kontuan hartuta. Hala, onartzen da GLOak zeregin garrantzitsuak duela herrialde kideei arintzearen misedetan politikak, araudiak eta legeak aldatzen laguntzeko.

Konpromiso hori betetzeko, elkarri lotutako hainbat lehentasunetan arreta jarri behar da. Lehenik eta behin, energia-zerbitzu jasangarriak eskuratzeko, pobrezia eta desperekotasunak murrizteko eta osasunerako eta hezkuntzarako funtsezkoak baitira. Hala ere, 733 milioi pertsonak ez dute oraindik elektrizitate, eta 2.400 milioi pertsonak ez dute janaria prestatzeko etxetresna elektrikorik eta erregai garbirik. Elektrizitate gabe bizi diren pertsonen kopuruak gora egiten jarraitzen du (2022an ia 20 milioi), batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikan. Finant-

zaketa eskuratzeko aukera gutxi izatea gainditu beharreko oinarriko oztoppo da, eta finantzaketa-maila 7. GJHra iristeko beharrezkoa den kopuruaren heren bat ingurukoa da. Bigarrenik, energia-eskariaren hazkundeko aurreikuspenak garatzeko bidean dauden herrialdeetan biltzen dira, munduko populazioaren ia bi heren bertan bizi baitira. Energia eskuratzeko erronkari populazioaren hazkundera, urbanizazio azkarra, industria-jardueraren hazkundera eta bizi-kalitate hobeari gero eta eskari handiagoa gehitzen zaizkio. Hirugarrenik, garatzeko bidean dauden herrialdeek segurtasun energetikoa lortzeko ahalegina egiten dute. Energia-horniketaren eta -sistemen etenaldiek garapen ekonomiko eta soziala mugatzen dituzte eta, konpontzeko, inbertsioak egin behar dira garapenerako beharren arabera.

Deskarbonizazioarako trantsizio energetikoen egoeran, hau da, gehienez 1,5 °C eta 2 °C bitarteko berotze globaleko ibilbidean mantentzeko eta klima-aldaketak mundu mailako garapenera izan dezakeen eraginik latzena saihesteko, garapen jasangarrirako lankidetzak hiru lehentasunei erantzun behar die aldi berean. Ahalegin horrek, gainera, ondorio positiboak ditu kanpoko eta barruko airearen kutsaduraren aurkako borrokan, osasunerako eskubidean, genero-berdintasunaren sustapenean eta lurreko eta itsasoko ekosistemak zaintzean.

Hori dela eta, Espainiako lankidetzak energia eskuratzeko arazoari erantzuten jarraituko du, kontuan hartuta sarbiderik ez izateak beste GJH edo garapenerako eremu askotako ahaleginak oztopa ditzakeela, eta sarbide horrek

askotariko gizarte- eta ingurumen-onura eta onura ekonomikoak sortzen dituela. Gainera, energia berriztagarriek Espainiako lankidetzaren arreta erakartzen jarraituko dute, deskarbonizazioa lortzeko bide gisa, baita lan-

da-komunitate isolatuetan arrazoizko aukera gisa ere; energia-eraginkortasuna, bere aldetik, eraginik handieneko eta enplegu duinak sortzeko ahalmen handiko aukera gisa sustatuko da.


**Iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzea eta energia-eraginkortasuna hobetzea. 7.1, 7.2 eta 7.3 xedeak.**

*Erakundeak indartzeko ekintzak sustatuko dira, energia berriztagarriak erabiltzeko politikak eta planak garatzeko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko, deskarbonizaziorako bide gisa eta landa-komunitate isolatuetan aukerarik arrazoizkoena den aldetik. Herritarrek energia-egoeren plangintzan eta diseinuan parte hartzea sustatuko da, komunitateetan ahalik eta eragin negatiborik txikiena izateko. Era berean, energia eskuratzearen arazoari erantzuten jarraituko da, kontuan hartuta sarbiderik ez izateak beste GJH edo garapeneko eremu askotako ahaleginak oztopa ditzakeela, eta sarbide horrek askotariko gizarte- eta ingurumen-onura eta onura ekonomikoak sortzen dituela, hala nola sukaldaritzako sistema garbiak eta seguruak edo horiei lotutako gizarte-zerbitzuak.*

**Ikerketa, garapen teknologikoa eta trebakuntza energia-sistema jasangarrietan. 7.A eta 7.B xedeak.**

*Ikerketa sustatuko da eta sektore pribatuarekin adostasunak egiten eta I+G+b arloan inbertitzen jarraituko da, hornidura-eredu jasangarriak, arrazoizkoak eta eskalagarriak garatzeko eta ezartzeko. Sare elektrikoak eta/edo energia berriztagarriak hedatuz zerbitzurik eman ezin daitekeen jarduerak lehenetsiko dira, komunitate zaurgarrienei arreta emateko.*

**BIOANIZTASUNAREN SUSTAPENA ETA BABESA: 14. ETA 15. GJHAK**



Aniztasun biologikoa eta ekosistemen zerbitzuak ezinbestekoak dira GJHak lortzeko. Naturak gero eta presio handiagoa jasaten du gizakion aldetik, eta horrek suntsitzen edo arriskuan jartzen ditu dohainik eskaintzen dituen ondasunak eta zerbitzuak, gure biziraupene-

rako funtsezkoak direnak (oxigenoa, klimaren erregulazioa, laboreen polinizazioa, elikagaiak, pentsuak, eraikitze materialak, etab.). Lurzoruaren erabilera aldatzeko egungo joerek, baso-soiltzeak, kutsadurak eta baliabide naturalen ustiapen jasangaitzak mugatu egiten dituzte herritarrek krisialdiei aurre egiteko eta pobrezia murrizteko dituzten aukerak, eta areagotu egiten dute desparekotasuna. Lurreko zein itsasoko aniztasun biologikoaren galerak eta ekosistemen degradazioak arriskuan jartzen dituzte pobreziarekin, gosearekin, osasunarekin, urarekin, hiriekin, klimarekin, ozeanoekin eta lurrekin lotutako GJHen xedeen % 80rango aurrerapenak.

Lurrazalaren % 75a aldatuta dagoenez, ekosistema asko kolapsatzeko zorian edo kolapsatuta daude, milioi bat espezie galzorian daude eta aniztasun genetikoak gainbeheran dago, eta milioika hektarea baso-eremu eta lur emankortona gal daitezke ere bai. Munduko ekonomia-aren erdia baino gehiago zuzenean naturaren mende dagoela jotzen da eta, beraz, okerrera egiteko arriskua du. Horregatik, Munduko Ekonomia Foroaren Arrisku Ekonomiko Globalen Urteko Txostenak munduko mehatxu larrienen artean hirugarren lekuan jartzen du bioaniztasunaren galera. Gainera, beste arrisku global batzuk areagotzen laguntzen du, hala nola elikagaien eta uraren krisialdiak, ingurumenaren hondamendiak, estatuen arteko gatazkak eta nahi gabeko migrazioa.

Nazio Batuen Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmenaren hamabosgarren Alderdien Konferentzian (COP15) 2022an onartutako Kunming-Montreal Bioaniztasunaren Esparru Globalarekin bat etorritik, Gida Plan honek Eeko kide diren herrialdeen bioaniztasunerako GLOa nabarmen handitzearen alde egiten du, baita bioaniztasunaren erabilera jasangarria sektoreko politiketan eta plangintzako eta garapenerako prozesuetan txertatzearen alde ere. Sektore honetako Espainiako lankidetzaren ekintzek aukera emango dute 2025erako Espainiako bioaniztasunerako GLOaren finantzaketa bikoizteko helbururantz aurrera egiteko, onartu berri den bioaniztasunaren esparru globalean aurreikusitako asmo-maila orokorraren ildotik.

***Herrialde kideetako politiketan bioaniztasunaren babesa sustatzea, eta ekosistemen kudeaketa jasangarri eta barneratzaileko jarduerak babestea. 15.1, 15.2, 15.4, 15.7, 15.9 eta 15.A xedek.***

*Erakundeak indartzeko ekimenak sustatuko dira, herrialde kideetako politiketan bioaniztasunaren babesa txertatzeko, arreta jarritz eraginik handiena duten sektoreei eta, bereziki, nekazaritzan, arrantzan, basoetan eta akuikulturan kudeaketa jasangarrirako eta ingurumenaren aurkako delitua saihesteko eta horren kontra borrokatzeko aldeko jardunbideak sustatuz. Halaber, ekosistemak modu jasangarrian babesteko eta kudeatzeko planen garapena bultzatuko da.*

*Tokiko komunitateen, herri indigenen eta emakumeen parte-hartze aktiboa sustatuko da baliabide naturalen kontserbazioarekin eta bioaniztasunaren babesarekin bateragarriak diren garapenerako eredu jasangarriak eraikitzeko erabakiak hartzean.*

***Lehorreko eta itsasoko gune natural babestuak sortzen, zabaltzen eta kudeatzen laguntzea. 14.2, 14.C, 15.1 eta 15.2 xedek.***

*Lehorreko eta itsasoko eremuak eta espezie babestuak kontserbatzeko babesa eta kudeaketa eraginkorra sustatuko da, baita Biosferaren Erreserbak sortzeko laguntza, erakundeak sendotzea eta teknikoki trebatzea ere. Era berean, basoberritzera, basoen eta ur-masen kudeaketa jasangarrira eta suteen aurkako borrokara bideratutako ekintzak sustatuko dira.*

**Ekosistema degradatuak, lurrekoak zein itsasokoak, hazien aniztasun genetikoa, flora eta fauna lehengoratzeko sustatzea. 14.C, 15.3, 15.4, 15.5, 15.6 eta 15.8 xedeak.**

*Erakundeak indartzeko ekintzak bultzatuko dira, ekosistema degradatuak lehengoratzeko planak garatzeko eta txertatzeko, naturan oinarritutako irtenbideen bitartez ere bai, baita hazi-bankuak garatzeko ere. Era berean, espezie exotiko inbasoreak sartzearen eta txertatzearen aurka eta espezieen legez kontrako merkataritzaren aurka borrokatzeko ekintzak sustatuko dira.*

## URA ETA SANEAMENDUA: 6. GJHA



Espainiako lankidetzak uraren eta saneamenduaren giza eskubideekiko konpromisoa berretsi du. Izan ere, nazioarteko lidergoa erakutsi du arlo horretan, bereziki Latinoamerikan eta Kariben. Ura eta saneamendua eskuratzea funtsezkoa da giza garapenaren jasangarritasunerako, eta ezinbestekoak dira pobrezia desagerrarazteko, desparekotasunei aurre egiteko eta garapenaren hainbat alderditan aurrera egiteko, hala nola gosearen aurkako borrokan eta ekoizpeneko jardueretan, bake soziala ahaztu gabe. Urak gizakion bizitzarako duen ezinbesteko izaera 2030 Agendako urari eta saneamenduari buruzko 6. GJHan islatzen da.

6. GJHak gizarte-kohesioko garrantzia eta ingurumeneko oso garrantzi handia ditu, besteak beste, hondakinen tratamenduari, arazketari eta baliabide hidrikoaren kudeaketa integratuari dagokionez. Funtsezkoa da klima-aldaketa arintzeko eta horretara moldatzeko ahaleginetarako eta ingurumenerako, muturreko gertaeren arriskurako barne, hala nola lehorteetarako. Hala ere, uraren eskuragarritasuna eta kalitatea zalantzan jartzen dira, batetik, kutsadurak duen eraginagatik eta, bestetik, ziklo hidrolotikoa eragina duten eta arrisku ugari sortzen dituzten muturreko gertaera meteorologikoengatik. Egoera horrek kalte larriak eragiten dizkie arriskuan dauden pertsonen, eta areagotu egiten ditu dagoeneko dauden desparekotasunak eta zaurgarritasunak. Oinarritzko osagai batzuk daude: zerbitzuaren eta ez azpiegituraren ikuspegitik

eragitea, segurtasun hidrikoa, baliabide hidrikoen kudeaketa integratua, klima-aldaketara egokitzea, muturreko fenomeno hidrolotikoen aurrean (lehorteak eta uholdeak) arriskuak kudeatzea eta ura, elikagaien eta energiaren arteko lotura.

Hori dela eta, Espainiako lankidetzak onartzen du ura lehen mailako ingurumen-baliabidea dela, eta uste osoa du garrantzitsua dela kudeaketa integralaren eta arro hidrografikoaren ikuspegia lehenestea kudeaketan, ura kontserbatzeko irizpide gisa. Horretarako, edateko ura eskuratzeko adierazleak hobetzea sustatuko du (batez ere landa-eremuetan, baina ez bakarrik bertan), eta eragiten dioten ingurumen-faktoreekiko, hau da, klima-aldaketaren eta kutsaduraren eraginarekiko, arreta indartuko du.

Errealitate hori saneamenduari eta osasunari lotuta dago. Saneamenduari dagokionez, COVID-19 gaixotasunaren pandemiak agerian utzi du saneamenduak, higieenak eta ur garbia behar bezala eskuratzeko berebiziko garrantzia dutela gaixotasunak prebenitzeko eta geldiarazteko. Sektoroko eremu horiek guztiak elkarrekin bizi dira eta elkarri elikatzen diote krisialdian.

Beste alde batetik, 6. GJHaren ezarpena ziurtatzeko beharra saihestezina da pertsona zaurgarrienen giza eskubideak babesteko eta aurrera egiteko. Ura eskuratzeko segurtasuna ere kontu erabakigarria da, munduko biztanleriaren laurdenak ez baitu ur eta saneamendu segururik. Horrek arrisku-egoeran dauden talde zaurgarrienei eragiten die, hala nola emakumeei, hau-

rrei eta lekualdatutako edo baztertutako gizataldeei. Kasu horietan, nazioarteko lankidetzaren beharra gero eta handiagoa da, batez ere finantzaketaren eta laguntza-programen bidez.

6. GJHari lotutako xedeak txertatzeko ahalegin horrek finantzaketa eraginkorra eta nahikoa eskatzen du. Helburuak lehentasuna izan arren, beharrak handiagoak dira eta eredu jasangarriak, azpiegitura egokiak eta kudeaketa parte-hartzailea eta demokratikoa behar dira. Espainiako lankidetzaren ezaugarrietako bat da urarekin eta saneamenduarekin duen konpromisoa, Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzako Funtsak (FCAS, gaztelaniaz) Latinoamerikan eta Kariben eta Masar Ura programak mundu arabiarrean erakusten dutenez.

FCAS tresna eraginkorra da ura benetako giza eskubide bihurtzeko. Bere lanak arriskuan dauden eta ura eskura dezaketen pertsonen erresi-

lientziara eta pertsonen ura eta saneamendua modu jasangarrian ziurtatuko dien benetako eraldaketa baten aldeko apustua egiten laguntzen du. Eskarmentuak erakutsi du eraginkorra dela Espainiako lankidetzaren hainbat tresna batzean eta, aldebiko dirulaguntzak ez ezik, finantza-lankidetzaren, lankidetzaren teknikoaren eta beste emaile batzuekiko eragileen antolaketa ere txertatzen ditu, baita, jakina, helburu horiek lortzen lagunduko duen Europar Batasunaren lankidetzaren ordezkatua ere, eta tresna horiek garatzen jarraituko dute.

Gida Plan hau indarrean dagoen bitartean, FCAS funtsaren esperientzia Latinoamerika eta Karibetik haratago zabaltzeko lan egingo da. Elkartzeko esparruetan eta beste plangintzako tresna batzuetan lehentasunak ezartzeak eta lankidetzaren ordezkatuko eragiketak izateak bidezko trantsizio ekologikoa bultzatuko duen 6. GJHa ezartzeko funtsen hornidura babestuko dute.

***Edateko eta kalitatezko uraren zerbitzuetara sarbide unibertsal eta bidezkoa izatea, eskubideen ikuspegiak aintzat hartuta. 6.1 eta 6.3 xedeak.***

*Biztanleriari edateko eta kalitatezko ura modu jasangarrian eramango dioten zerbitzuen sarea hobetzeko eta zabaltzeko lan egingo da, batez ere landa-eremuetan, genero-ikuspegiak eta giza eskubideak aintzat hartuta eta arreta berezia jarriz desgaitasunen bat duten pertsonen eta haur eta nerabeen sarbide eraginkorrari.*

***Saneamenduko oinarrizko zerbitzuen eta higieneko ekipamenduen sistemak sustatzea. 6.2 eta 6.3 xedeak.***

*Saneamenduko azpiegiturak egingo dira eta hondakin solidoak kudeatzeko eta hondakin-urak arazteko ekintzak bultzatuko dira. Erakundeak indartuko dira plangintzarako eta kudeaketarako, eta prestakuntza-programak eta higiene-ohiturak sustatzeko programak babestuko dira.*

***Uraren gobernantza barneratzailea eta baliabide hidrikoen kudeaketa integrala modu jasangarrietan bultzatzea. 6.5 eta 6.B xedeak.***

*Erakundeak indartzera bideratutako ekintzei emango zaie lehentasuna, segurtasun hidrikoaren plangintza egiteko eta arro hidrografikoaren kudeaketa integralaren ikuspegiak sustatzeko, kudeaketa hura kontserbatzeko irizpide gisa kontuan hartuz. Horretarako, urari eta saneamenduari giza eskubideen ikuspegiak emango zaie eta kudeaketari, berriz, generoaren ikuspegiak. Horrez*

*gain, edateko ura eskuratzeko adierazle hobekuntza sustatuko da, eta eragiten dioten ingurumen-faktoreen arreta indartuko da, hala nola klima-aldaketaren eta kutsaduraren eragina. Hala-ber, tokiko komunitateek uraren eta saneamenduaren kudeaketan parte hartzen laguntzeko lan egingo da.*

**Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra, uretako ekosistemen kontserbazioa eta lotutako arriskuen prebentzioa. 6.4 xedea.**

*Baliabide hidrikoak kontserbatzera bideratutako ekimenak sustatuko dira, baita arriskuak prebenitzeko eta arintzeko neurriak ere. Arro hidrografikoan basoberritzeko, akuiferoak kontserbatzeko eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioak egiteko ekintzak bultzatuko dira. Era berean, erauzketaren jasangarritasuna eta kutsadura, gehiegizko ustiapena eta eutrofizazioa tratatzeko ekimenak bermatuko dituzten ekintzak bultzatuko dira.*

### 3.2.3 Trantsizio ekonomikoa

Trantsizio ekonomikoa bultzatzeko, ekoizpeneko eredu jasangarriagoetarantz jo behar da, ekosistemak kontserbatu eta lurraldearen baliabide naturalen balioa azpimarratuko dutenak, dagoeneko dauden desparekotasunak kontuan hartuta, besteak beste, generokoak eta horien azpian dauden botere-dinamikak. Ohiko eredu ekonomikoek emakumeak baztertu eta esplotatu izan dituzte historikoki, baita pobrezia eta bazterketa biltzen diren taldeak eta komunitateak ere; gainera, desgaitasuna duten pertsonak, LGTBI pertsonak eta Espainiako lankidetzaren herrialde kideetan egoera zaurgarrian dauden beste talde batzuk diskriminatu egin dituzte, desparekotasunak, genero-arrakala eta baztertze ekonomikoa betikotuz.

Beharrezkoa da, beraz, garapen jasangarria eta baliabide naturalen kontserbazioa bultzatzen dituzten ekimen ekonomikoak sustatzea, biztanleen egoera ekonomikoa eta bizi-baldintzak hobetuz, lan-baldintza duinak bermatuz eta ordaindu gabeko lana aintzat hartuz eta aitortuz, hala nola, etxeko eta zaintzako lana, historikoki ikusezin bihurtu eta gutxietsi izan dena. Bioaniztasunaren babesak eta agroekologiari laguntzeak ere funtsezko zeregina dute hemen, trantsizio hirukoitzari eman beharreko erantzunaren

zeharkako osagai gisa eta, haien garrantziagatik, elikagaien eta nutrizioaren alorrak ere.

Horregatik, ezinbestekoa da tokiko komunitateen, herri indigenen, emakumeen eta gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa sustatzea, gobernantza barneratzailea ahalbidetuz eta adostasunean eta zuzentasunean oinarritutako irtenbideak bultzatuz. Garapen ekonomikoa barneratzailea izango da desparekotasun sozioekonomikoei heltzen zaienean eta bere jasangarritasuna bermatzen denean. Tokiko komunitateei ahotsa ematean, inklusioa eta erantzukizun partekatua sustatzen dira, tokiko ezagutzei etekina ateratzen zaie eta jasangarritasuna eta erresilientzia bultzatzen dira. Horrek irtenbide eraginkorrakoak eta zuzenagoak sortzen laguntzen du, gizartearen segmentu guztiei mesede egingo dien garapen ekonomikoa bultzatuz.

Beste alde batetik, nekazari txikiek ekoizpen-baliabideak zuzentasunez eskuratzeko sustatuko duten politika publikoak indartu behar dira, landa-komunitateetako bizi-baldintzak hobetuko dituztenak eta nekazari txikiek merkatuetan baldintza egokietan parte hartzea erraztuko dutenak, bidezko merkataritzako merkatuetarako eta saretarako sarbidea bultzatuz, baita baliabide naturalen jasangarritasuna, ekonomia soziala eta tokiko balio-kateen sendotzea ber-





matuko duten nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko tekniken berrikuntza ere, belaunaldi berrientzako aukerak sustatuz.

Garapen ekonomiko horren barruan, kontsumoko eta ekoizpeneko ohitura jasangarriak dituen turismo-sektoreak jasangarritasunerako eraldaketa globalerako zeregin garrantzitsua izan dezake, kultura-nortasunak eta elkarrekiko ezagutza zainduz eta bere garrantzia azpimarratuz, eta lan duina emanez.

Inklusio digitala eta teknologietarako sarbide zuzena bermatzea eta komunitateen gaitasun teknologikoak indartzea funtsezkoa da garapen barneratzaile eta jasangarria sustatzeko. Gainera, konektagarritasuna zabaltzeak, administrazio publikoa digitalizatzeak, eskubide digitalak babesteak eta gizarte zibilak erabaki digitalak hartzean parte hartzeak digitalizazio etiko eta gardena lortzen laguntzen dute, Garapen Jasangarriko Helburuekin eta 2030 Agendarekin bat etorritik.

**LURRALDEKO LANDA-GARAPENA ETA  
NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SISTEMA  
JASANGARRIAK: 2., 11. ETA 14. GJHAK**



Lurraldeko landa-garapena sustatzearen aldera, aldi berean ekin behar zaie alderdi produktibo eta instituzionaleri, lurralde bateko tokiko eragileak tokiko erakunde-esparru batean antolatzea erraztuz, haien lurraldearen epe luzeko garapenaren ikuspegi bat adosteko, erakundeen erreformak, tokiko gobernuen deszentralizazioa eta indartzea, adostasun soziala eta abar barne. Era berean, epe ertain eta luzeko jarduteko denbora-muga batean planteatu behar da.

Jasangarritasunean aurrera egiteko, garrantzitsua da ekosistemen zerbitzuak esplizituki hobetzen dituzten eta elikadura-sistemen oinarri den kapital naturala eraikitzen duten nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko moduak aintzatestea eta indartzea. Beraz, bidezko merkataritzako merkatu eta sareetara irits daitekeen klima-aldaketara egokitutako nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena bultzatu behar da, haien ezagutzaren bidez eta ekoizpeneko ohitura tradizionalak erabiliz baliabide naturalak babestu dituzten emakumeek, tokiko komunitateek eta herri indigenek parte hartuz.

Funtsezkoa da landa-komunitateen eta gizarte zibilaren parte-hartze aktiborako ingurune egokia eskaintzea, gobernantza barneratzailea eta eragileen arteko lankidetzak bermatuz eta adostasunean eta zuzentasunean oina-

rritutako irtenbideak sustatuz. Gizarteen parte-hartzea sustatzeak aukera ematen du baliabideak eskuratzearekin, berrikuntzarekin, ingurumenaren babesarekin eta landa-garapen barneratzaile eta jasangarria sustatzearekin lotutako erronkei modu eraginkorragoan heltzeko.

Espainiako lankidetzak nekazaritza txikian, familiakoan eta baserrikoan oinarritutako eredu bat sustatzen du, tokiko elikadurarako ekoizpena gehiago bideratuta dagoena eta, normalean, jasangarritasuneko ikuspegiak txertatzea bilatzen duena. Ildo horretatik, baratzeak eta familia-ustiategiak bioaniztasunaren ezinbesteko gordailuak dira maiz nekazaritzarako eta elikadurarako. Familiako nekazaritzak familia batek kudeatzen dituen eta bere eskulanaren menpe dauden nekazaritza, basogintza, arrantza, abeltzaintza eta akuikulturarekin lotutako jarduerak hartzen ditu barne. Gainera, kasu askotan nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenaz haratagoko kanpoko eragin positiboak sortzen dituela uste da, hala nola bioaniztasunaren eta kultura-ondarea babestea, landa-ekosistemak eta -paisaiak mantentzea, lurraldea egituratzea eta abar.

Beste alde batetik, bidezko merkataritza eta familiek ekoizpen-baliabideetarako sarbide zuzena izateko, landa-komunitateetako bizi-baldintzak hobetzeko eta merkatuetan bidezko baldintzetan parte hartzeko politika publikoak bultzatu behar dira.

Gero eta ohikoagoak diren lehorteen ondorioak arintzeko eta familien ekoizpena merkatuetan errazago sar dadin, ekoizle txiki eta ertainen diru-sarrerak hobetzeko ureztatzeko sistema eraginkorrak instalatzea bultzatuko da. Uraren ustiapenean eta zentzuzko erabileran oinarrituko dira eta familia guztiek sarbide zuzena izatea bermatuko da, kalitatea ziurtatuz eta egungo eta etorkizuneko belaunaldiak aintzat hartuz.

Nekazaritza industrialak bultzatutako aukeraren aurrean, agroekologikoki areagotzearen

aukera dago. Horren helburua da nekazariak kanpoko sargaiekiko mendekotasun gutxiago izatea, ezagutza gehiago babestea eta prozesu naturalei etekina ateratzea, oinarri ekologikoak txertatzea eta sistemaren osagai biotiko

eta abiotikoen ekoizpen-ahalmena handitzea, ingurumenaren gaineko kostuak txikiagotuz eta bioaniztasuna mantenduz basabizitzarekin lagunkoiak diren laborantza-sistemen bidez.

***Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen-sistema jasangarriak eta klima-aldaketarekiko erresilienteak babestea eta sustatzea. 2.3, 2.4, 2.5 2. A eta 2.C xedek.***

*Klima-aldaketara egokitzeko estrategiak hartzen dituzten nekazaritza eta abeltzaintzako sistemak sustatuko dira, ekoizpeneko dibertsifikazioarekin eta bioaniztasunaren kontserbazioarekin bateragarria den nekazaritza jasangarria eta erresilientea bultzatuz, bertako hazien erabilera sustatuz, baserriko animalien aniztasun genetikoa mantenduz eta familiei eta kooperatibei laguntza tekniko eta trebakuntza eskainiz.*

*Ekoizpena hobetu eta balio erantsia ematen duten programak babestuko dira, hala nola ureztatze sistema jasangarriak eta biltegitratzeko, eraldaketarako eta bidezko merkaturatzerako nekazaritza-azpiegiturak. Familiek ekoizpen-baliabideak eskuratzen laguntzeko eta baldintza onuragarriak dituzten merkatuak bultzatzeko politika publikoak indartuko dira ere bai.*

*Halaber, ohiko ekoizpen-sistemak klima-aldaketara nola egokitzen diren eta landareen eta abereen gene-bankuak ikertzeko programak bultzatuko dira.*

***Arrantza-sistema jasangarriak babestea eta sustatzea. 14.4 eta 14.B xedek.***

*Familiek arrantza jasangarria sustatzen duten baliabideak eskuratzen laguntzen jarraituko da, uretako ekosistemak errespetatuz espezieen biziraupena epe ertain eta luzera bermatzeko, baita populaziorik zaugarrienen arrantza-jarduera bermatzeko ere.*

*Erakundeak indartzeko programak ere sustatuko dira, arrantza jasangarriari buruzko araudiak eta estatuko estrategiak egiteko.*

***Lurraldeko landa-garapen barneratzailea bultzatzen duten politikak babestea, komunitateen eta gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa sustatuz erabakiak hartzean. 11.3 xedea.***

*Genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista dituzten lurralde-antolamenduko plan barneratzaile eta jasangarriak garatzeko laguntza emango zaie erakundeei, eta landa-eremuetan garapen zuzena sustatzen duten politika publikoak bultzatuko dira, komunitateen eta gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa sustatuz erabakiak hartzean.*

**GARAPEN EKONOMIKO BARNERATZAILEA  
ETA JASANGARRIA: 8., 9. ETA 12. GJHAK**



Garapen jasangarrirako gai-zerrendaren beste erronka handietako bat eskualdeen, herrialdeen eta herrialdeen barruaren arteko desparekotasun sozioekonomiko gero eta handiagoak dira. Hala, Espainiako lankidetzak eragin handia izan dezake gizarte zibila, gobernuak, sektore pribatua eta nazioarteko erakundeak tartean sartzeko eragile anitzeko adostasunak mugiarazteko, garapen barneratzaileari heltzeko eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak betetzeko giza eskubideen eta 1. eta 10. GJHen funtsezko zati gisa, gure ekintzaren helburu nagusiak eta zeharkakoak baitira. Ildo horretatik, ezinbestekoa izango da mikroenpresen, enpresa ertainen

eta enpresa txikien sarea indartzea, herrialde askotako egitura ekonomiko eta sozialaren oinarria baita eta, modu orokorragoan, bidezko zerga-sistemen garrantzia txertatzea, langileek haien eskubideak modu eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna handitzea, eta ekonomia informaleko enpresen ekonomia formalerako trantsizioa babestea, benetan barneratzailea den garapena lortzen laguntzeko.

Eragile anitzeko lankidetzak horri esker, gizarte zibilararen parte-hartze eraginkorra sustatuko da erabakiak hartzeko orduan, baita garapen ekonomiko barneratzailea eta jasangarriarekin eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak betetzearekin lotutako politikak eta programak ezartzeko eta monitorizatzeko orduan ere. Halaber, tradizionalki *missing middle* deitutako sektore honetan finantzaketa eta formalizazioa eskuratzearen aldeko apustua egingo da, Espainiako lankidetzaren finantzaketako tresnak moldatuz garapen ekonomiko barneratzaile eta jasangarriaren erronketara, eta gizarte-babeseko neurriak eta enpresak eta langileak erregistratzeko erraztasunak bultzatuz. Era berean, finantzaketa publikoa eta pribatua lortzeko ahalegina egingo da, ekoizpen-sarean eragina izateko.

**Lan-eskubideen babes eraginkorra babestea eta sustatzea enplegu duina eta kalitatezkoa lortzeko, lan-ingurune seguruak eta barneratzaileak sortuz. 8.5, 8.7 eta 8.8 xedeak.**

*Langileen lan-eskubideak sustatzeko ekintzak indartuko dira, lan duina sortzea bultzatuz sektore feminizatuei arreta berezia eskainita. Lan-baldintza duinak lantokietan, haurren lana saihestea eta desagerraraztea, indarkeriaren aurka borrokatzea lan-munduan, eta emakumeen berdintasunezko agerpena eta ekintza sustatzea gizarte-eragileen eremuan eta gizarte-elkarrizketan bultzatuko dira. Emakumeen eskubide ekonomikoak eta lan-eskubideak sustatzearen alde lan egingo da, ekonomia feministaren eta zaintzaren arabera, eta sindikatuen arteko lankidetzak babesteko da. Lan-baldintza formalizatu eta egonkorak bermatzen dituzten arau-esparruei eta politikei laguntzeko ekimenak sustatuko dira, ekonomia informaletik formalerako trantsizioa sustatzeko lan duina eta garapen sozial eta ekonomiko barneratzaile eta jasangarria babesteko bitarteko gisa.*

**Jarduera ekonomiko jasangarrien garapena babestea. 8.3, 8.4, 9.1, 9.2 eta 9.3 xedeak.**

Nekazaritzakoak ez diren mikroenpresa, enpresa ertain eta enpresa txikien negozio-ereduetan jasangarritasuna txertatzeko ekimenak sustatuko dira, lehiakortasun eta produktibitate handiagoa sortuz, jasangarritasuna balio-kateetan sartuz eta lan-baldintza duinak bultzatuz. Kreditu-programak sustatuko dira, baita enpresa-sektorean eta ekonomia sozialean berrikuntza-programak eta gaitasunak hobetzeko programak ere.

**Garapen ekonomiko eta soziala sustatzen duten zerbitzu eta azpiegitura jasangarriak bultzatzea. 9.1 eta 12.5 xedeak.**

Tokiko garapenerako azpiegiturak eta zerbitzuak, mugikortasuna, bide-segurtasuna, pertsonen eta salgaien irisgarritasuna eta herritarren ongizatea hobetzeko eta dagoeneko dauden desparekotasunak arintzeko ekimenak bultzatuko dira. Hondakinen kudeaketa eta birziklapenaren sustapena eta ekonomia zirkularra eta soziala sustatzen duten beste ekintza batzuk eta herritarren gai horren inguruan sentsibilizatzeko kanpainak bultzatuko dira. Halaber, dagoeneko dauden gizarte-laguntzako sareak indartzeko ekimenak egingo dira, baita kooperatibetan eta familia-negozioetan eta nekazaritzakoak ez diren mikroenpresa, enpresa ertain eta enpresa txikietan eragina duten bidezko merkataritzako ekimenak ere.

**Turismoko politikak eta planak bultzatzea komunitateei onurak ekarriko dizkien enplegu duina eta barneratzailea sortzeko. 8.9 eta 12.B xedeak.**

Turismo jasangarriko ekimenak, ibilbide turistikoaren garapena, turismo komunitarioa eta ondare kulturala zaintzera zuzendutako turismoa babesteko dira, genero-berdintasuna eta desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna eta aukerak sustatuz. Politika eta plan turistiko jasangarri eta erresilienteen diseinuan erakundeak indartzera bideratutako ekintzak gauzatu dira. Gazte zaugarrienen prestakuntza eta gizarteratzea sustatuko dira, lan-baldintza duinak eskainiz.

**GARAPEN JASANGARRIRAKO DIGITALIZAZIOA: 4., 9. ETA 16. GJHAK**



Bi aldietan (Geneva 2003, Tunis 2005) egindako NBEren Informazioaren Gizarteari buruzko Munduko Goi-bilera inflexio-puntua izan zen garapen digitalaren bilakaeran eta garapenaren munduko gai-zerrendan duen kokapenean. Hurrengo bi hamarkadetan, Europako zenbait lankidetzak estrategia digitalak landu eta ezarri dituzte. Hala ere, digitalizazioari bereziki eta, oro har, teknologia berriei ez die lehentasunezko arretarik eman Espainiako lankidetzak, noizean behingo esperientziak alde batera utzita.

Dena den, informazioaren eta komunikazioaren teknologien egungo nonahikotasunak

eta, bereziki, telefonia mugikorrarenak, eta 2020ko pandemiaren esperientziak, non sare eta zerbitzu digitalak garrantzitsuak izan ziren konfinamenduko etapa luzei aurre egiteko orduan, argi eta garbi erakutsi dute sektore hau erabakigarria izan daitekeela herrialdeetarako eta haien herritarrentzako. COVID-19 gaixotasunak agerian utzi zuen konektagarritasuna berehala ari dela bihurtzen inklusioaren eta bazterkeriaren neurri globala. Izan ere, 2.900 milioi pertsona daude Internetetik deskonektatuta. Hainbat eten digitalek, batez ere genero-arrakala digitalak, eta gaitasun digitalen faltak eragotzi egin dute pertsona askok, bereziki zaugarrienak, haien etxeetatik lan egitea edo ikastea krisialdian zehar. Paradoxikoki, munduko biztanleen % 93a estaldura dagoen eremuetan bizi da, eta horrek erakusten du ez gaudela erronka teknologiko huts baten aurrean. Gainera, azken bolada honetan adimen artifizialaren aurrerapenak hamaika aukera dakartzate, pertsonok lan egiteko eta harremanak izateko dugun modua errotik alda dezaketen tresnen bidez.

Horregatik, garapenerako digitalizazioak garrantzi handia hartu du. Konektagarritasuna eta Interneterako sarbidea munduko ondasun publiko eta giza eskubide gisa gero eta indar han-

diagoa hartzen ari da Nazio Batuetan, ELGAN eta G20en. Europar Batasunean, digitalizazioa garapenerako gai-zerrendaren gai bat da, eta D4D Hub edo UE-LAC Aliantza bezalako ekimenek erakusten dute oso garrantzitsua dela emaitzarik onenak lortzeko elkartzek sortzea, eragile asko ados egon behar diren eremu batean (gobernua, gizarte zibila, enpresa teknologikoak, etab.).

Erronka ugari dituen errealitate baten aurrean gaude. Gutxien garatuta dauden herrialdeen konektagarritasunak desafio handi bat du: kalitatezko Internet eskaintzea munduko 4.100 milioi pertsonari. Baina hori bezain zaila da ekosistema digitala arautzea, giza eskubideekin lotutako gai konplexuak biltzen baititu, hala nola zibersegurtasuna, desinformazioa, jabetza intelektuala, jazarpena, adimen artifiziala eta kontrol totalitarioa. Horietako batzuk demokraziarako arrisku larriak dira, hain zuzen ere.

Horregatik guztiagatik, garapenerako digitalizazioa aukera bat da Espainiako lankidetzak, Europako beste lankidetzak batzuekin batera, elkartasuneko esparru egokiak ezartzeko herrialde kideekin, eskubideetan oinarritutako sozietateen digitalizazioaren bidez, 2030 Agenda errazago bete dadin.

### **Herrialde kideetan konektagarritasuna, zerbitzuak eta gaitasun digitalak sustatzea. 4.7 eta 9.C xedek.**

*Espainiako lankidetzaren herrialde kideetan konektagarritasuneko azpiegiturak abian jartzea sustatuko da. Era berean, teknologia eta zerbitzu digital seguruetarako sarbidea bultzatuko da, batez ere pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dutenak, hala nola osasuna eta hezkuntza. Herrialde kideetako administrazio publikoak berritzeko teknologia eta zerbitzu digitalak ere bultzatuko dira. Teknologia eta zerbitzu horiek irisgarriak direla ziurtatzeko eta edozein arrakala digital murrizteko, gaitzeko jarduera barneratzaileak sustatuko dira eta, batez ere, gizatalde zaugarriengan, landa-eremuetan eta urrutiko eremuetan, eta sektore publikoko langileengan eragingo da.*

**Herrialde kideetan eskubide eta pribatutasun digitalen babesa bermatzea lege- eta arau-esparruen bitartez. 16.10 xedea.**

*Pertsonen eskubide digitalak eta pribatutasuna bermatzeko ekintzak sustatuko dira lege- eta arau-esparru egokien eta eguneratuen bidez, Europako esparruak oinarri. Hori guztia gaur egun zibersegurtasuna eta adimen artifiziala bezalako esparruek zuzenbidezko estaturako dituzten aukerak eta erronkak kontuan hartuta. Era berean, teknologia erabiliz gobernuen gardentasuna eta kontuak ematea sustatuko da.*

### 3.3. Lehentasun geografikoak

1/2023 Legeak lehentasun geografiko batzuk ezartzen ditu eta Afrikako iparraldeko, Ekialde Hurbileko eta Saharaz hegoaldeko herrialdeak (berezi mendebaldeko Afrikako eta Saheleko herrialdeak eta gaztelania eta portugesa nagusi dituzten herrialdeak), baita Latinoamerikako, Karibeko eta Iberoamerikako esparruko herrialdeak nabarmentzen ditu. Aipatutako eskualde geografiko horietan izan du historikoki eraginik handiena Espainiako lankidetzak, eskarmentu-maila handienarekin eta elkartasun egonkor eta iraunkorren, eta balio erantsi

handiagoa eskain dezake garapen jasangarri-rako lankidetzan.

Krisialdi anitzeko munduko testuinguruan, erronka eta behar berriek azpimarratzen dute premiazkoa dela laguntzako eta lankidetzako mekanismo egokiak ezartzea errentako irizpide zorrotzetan oinarritzen den GLOa jasotzen ez duten baina oraindik



ere nazioarteko lankidetzatik, trantsizioan da-  
goen garapenetik, heltzen zaizkien erronka eta  
hutsuneei aurre egin behar dieten herrialde gisa  
sailkatzen diren Espainiako lankidetzako herrial-  
de kideekin. Ikuspegi horren arabera, garapene-  
ko prozesuak prozesu konplexu, mailakatu eta  
etengabeak dira, eta ez dira amaitzen herrial-  
deak errenta-maila jakin batera iristen direnean;  
aitzitik, erronka gisa irauten dute lorpenak ja-  
sangarriak diren arte eta, beraz, errentetan oina-  
rritutako neurketak ez dira nahikoa herrialdeen  
egoerak ebaluatzeko. Ikuspegi hori onartzeak  
esan nahi du 2030 Agendaren eta bere GJHen  
unibertsaltasuneko izaerarekin bat datorren na-  
zioarteko lankidetzako estrategia antolatzea,  
garapen ekonomiko eta barneratzailearen bidez  
pobrezia desagerraraztean bakarrik ardaztutako  
lankidetzaren ikuspegia gainditzea eta garape-  
nerako lankidetzak zabalago baterantz aurrera  
egitea, garapenaren oztopoak gainditzea, des-  
parekotasunen aurka egitea, ondasun publiko  
globalak sustatzea eta herrialdeak garapene-  
ko eredu jasangarriagoetarantz joatea bideratzea  
helburu dituenak. 1/2023 Legearekin (eta Gida  
Plan hau gauzatzen duen lehena da), Espainia  
GLBeko herrialde emaleetako bat bihurtu da.  
Legeak garapen jasangarriko lankidetzako le-  
hentasan ezartzen ditu "sailkatutako" herrial-  
deen arabera, ulertzen baita lankidetzak ezin dela  
adierazle bakar baten bidez zehaztu (herrialde  
baten batez besteko errenta). Hori dela eta, Es-  
painiako lankidetzak ikuspegi horretatik aurrera  
egiteko moduaren inguruko hausnarketa eta  
eztabaidak bultzatzen jarraituko du ELGaren es-  
parruan, garapenerako finantzaketaren gai-ze-  
rrendaren alde anitzeko izaerari ere lotuta.

Ondorioz, elkartasunak bilatuko dira 2030  
Agenda betetzeko orduan desparekotasunik  
eta erronkarik handienak dituzten herrialdeekin  
eta garapen jasangarriaren eremuan interes eta  
balio partekatu gehien dituzten elkarte- eta  
lankidetzak-herrialdeekin. Europar Batasunaren  
kanpoko ekintzarako garrantzi berezia duten  
herrialde eta eskualdeetan jardun ahal izango  
da, Europar Batasunarekin lankidetzan, Gida  
Plan honetan zehaztutako lehentasun geogra-  
fiko eta sektorekoetatik abiatuta. Halaber, giza

eskubideak urratzeko kasu bereziei ekin ahal  
izango zaie, zaugarritasuneko testuinguruetan  
eta gizartean eta ingurumenean eragin handia  
eta ondorio globalak dituzten egoeretan nagu-  
sitzin badira.

Gida Plan honek Espainiako lankidetzaren le-  
hentasan geografikoak zehazten ditu hiru mai-  
latan: lehentasunezko eskualdeak, lehentasu-  
nezko herrialdeak eta arretako beste herrialde  
batzuk. Plan honetan zehaztutako zeharkako  
ikuspegiak eta sektoreko lehentasunak lehenta-  
sunezko herrialde eta arretako herrialde bakoit-  
zean ezarriko dira, aurrerago deskribatuko diren  
eskualdeko ikuspegi bidez ere bai. Ikuspegi  
horiek herrialdeen testuingurura eta behar ze-  
haztetara egokitu beharko dira.

Ekintza humanitarioari dagokionez, testuin-  
gururako estrategiak ezarriko dira; erakunde hu-  
manitario nagusiekin bat eginez, bi urtean behin  
gauzatuko dira eta behar humanitarioen azter-  
keta bati eta zaugarritasuneko ikuspegi bati  
erantzunak diete. Era berean, edozein motatako  
larrialdiren aurreikusitako ezin den izaera kontuan  
hartuta, Gida Plan honetan eta Espainiako lan-  
kidetzaren estrategia humanitarioetan ezarri-  
tako lehentasun geografikoei kalterik egin gabe,  
ekintza humanitarioko esku-hartzeak egin ahal  
izango dira beste testuinguru geografiko bat-  
zuetan, identifikatutako behar humanitarioek  
hala eskatzen badute.

### 3.3.1 Espainiako lankidetzarako lehentasunezko eskualdeak eta herrialdeak

Lehentasunezko herrialdeak identifikatzeko,  
eta Espainiako lankidetzaren ibilbidearen eta  
balio erantsiaren azterketatik abiatuta, kon-  
tuan hartzen dira giza garapenaren, despare-  
kotasunen eta alde anitzeko zaugarritasun  
intersektionalen adierazleak, giza eskubideen  
eta genero-berdintasunaren ikuspegitik, baita  
ingurumenaren alderdiari, klima-larrialdiari eta  
Nazio Batuek adostutako bakeko, segurtasu-



neko eta gobernu oneko xedeei lotutako adierazleak ere.

Lehentasunezko herrialdeekin estrategia bereziak ezarriko dira testuinguruaren ezaugarriak bilatu ahal izateko eta egoera bakoitzaren berezitasunei lotutako programak zehaztea mugatu eta erraztuko duen lan-esparru bat eskaintzeko. Horretarako, Espainiako lankidetzak jarduteko plangintzako dokumentu bat egingo da herrialde bakoitzerako. Aldez aurretik aipatutako adierazleak kontuan hartuta, dokumentua hiru motatakoa izan daiteke: garapen jasangarrirako elkartzeko esparruak, garapen jasangarrirako elkartasunak edo lankidetzako estrategiak.

Gida Plan honek ez du zehazten zein herrialdeekin ezarri behar den garapen jasangarrirako elkartzeko esparru bat edo elkartasun bat; izan ere, eskarmentuak esaten digu herrialdeen bilakaera ez dela lineala eta egoera aldatu egiten dela denborarekin. Jabetze-oinarria funtsezkoa da herrialde kideekiko harremanetan. Beti bi aldeekin sinergie, baliabideei eta gaitasunei ahalik eta etekin handiena ateratzen dien berdinkiduen arteko elkartasun horizontala eta lehentasun partekatuetarako joera bilatzen dugu, garapen jasangarriaren helburuak lortzeko.

Honako hauek dira Espainiako lankidetzarako lehentasunezko eskualdeak: Latinoamerika eta Karibe; Afrikako iparralde eta Ekialde Hurbila; mendebaldeko Afrikako eta Sahelako herrialdeak eta gaztelania eta portugesa nagusi dituzten Afrikako herrialdeak.

Lehentasunez arituko gara elkarlanean honako hauekin:

**Latinoamerika eta Karibe:** Argentina, Bolivia, Brasil, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Kuba, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Haiti, Honduras, Mexiko, Nikaragua, Dominikar Errepublikak, Panama, Paraguai, Peru, Uruguai eta Venezuela.

**Saharaz hegoaldeko Afrika:** Cabo Verde, Senegal, Niger, Mali, Etiopia, Ekuatore Ginea eta Mozambike.

**Afrikako iparralde eta Ekialde Hurbila:** Maroko, Mauritania, saharar errefuxiatuak, Tunisia, Egipto, Jordania, Palestina eta Libano.

**Asia:** Filipinak.

Espainiako lankidetzaren espezializazio geografikoari eusteko eta hura indartzeko, eta posible diren aurrekontu-baliabideen gehikuntzak bideratzeko herrialde kideetan eragin handiagoa izan dezaten, gure ekintzen eragina gutxituko duen hedapen geografikoa sustatzearen ordez, lankidetzako tresnek aipatutako herrialde eta eskualdeei erantzunon diete. Hala ere, lehentasunezko herrialdeetan ez ezik (horietan handiagoa izango da esku-hartzea), Espainiako lankidetzak lehentasunezkoak ez diren baina Gida Plan honetan zehaztutako lehentasunezko eskualdeetakoak diren beste herrialde batzuetan ere lan egin ahal izango du. Hori, ahal izanez gero, eskualdeko ikuspegiaren bidez egingo da eta, kasu kasu xehetasunez berrikusi ondoren, argi eta garbi zehaztuko dira erabiliko diren lankidetzako modalitateak eta tresnak, baita gauzatu nahi den jardueraren jarraipenari estaldura emateko modua ere. Kasu horietan, kanal aldean zintzen bidez edo eskualdeko erakundeekin lankidetzan aritzea lehenetsiko da, finantza-lankidetzaren edo garapenerako gobernu kanpoko erakundeekin deialdien bitartez. Hurbilketa berri horrek garrantzi berezia izango du Sahel eta mendebaldeko Afrikan, Espainiako lankidetzak lehentasunezko herrialdeetatik haratagoko eskualdeko dinamikei erantzun behar baitie.

Hala, bada, aldebiko programez gain, eta eskualdeko lankidetzaren eta integrazioaren bultzatzearen ondoren, datozen urteetan Espainiako lankidetzak indartu egingo du bere jardueraren eskualde mailan. Asian, Gida Plan honen denbora-esparruko helburua estrategia bat lantzea izango da, Filipinetan daukagun programatik eta eskualdeko gure lankidetzako beste eragile batzuen lanetik abiatuta, Espainiako lankidetzarako lan-programa antolatu bat eraikitzeke lan-ildoak eta tresnak identifikatzeko.



### 3.3.2 Eskualdeko lankidetzak

#### Latinoamerika eta Karibe

Azken aldian mundu osoan izan diren askotariko krisialdien ondorioek eragina izan dute eskualdean, eta pobrezia-mailak eta desparrekotasun-arrakalak handitu egin dira; horrek eragin berezia izan du haurren eta nerabeen eskubideetan. Horri guztiari erregionalismoaren eta integrazio-prozesuen krisialdiak gehitu behar zaizkio, barneko gatazkek, ezegonkortasun sozioekonomikoak, eremu zibikoen murrizketak eta bilakaera politiko autoritarioek larriagotuta.

Espainiako lankidetzak beti egin du eskualdeko integrazioaren alde, garapen jasangarriaren bultzatzaile gisa. Testuinguru horretan, SICA, CARICOM eta CELAC erakundeekin harrema-

nak sendotzen jarraituko dugu, eta beste prozesu batzuei laguntzeko aukera aztertuko da, hala nola MERCOSUR. Era berean, Iberoamerikako eremuak tresnak sortu ditu eskualderako funtsezkoak diren gaien inguruan adostasunak lortzeko.

Espainiako lankidetzak Iberoamerikako eremua lankidetzako testuinguru gisa lehenesten jarraituko du, bere jarduera-tresnak bultzatzearen bidez. Iberoamerikako lankidetzaren esparruan, Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiak (SEGIB, gaztelaniazko sigletan) eragileen sare bat koordinatzen du (Iberoamerikako erakundeak, sareak, programak, ekimenak eta atxikitako proiektuak) Santo Domingon ospatutako XXVIII. Iberoamerikako Goi-bileraren emaitza den 2023-2026 Iberoamerikako Lankidetzaren III. Lau Urteko Ekintza Planaren helburuak lortzeko,

baita Ingurune Digitaletako Oinarri eta Eskubideen Iberoamerikako Gutuna, Iberoamerikako Ingurumeneko Gutuna eta Iberoamerikan Elikagaien Segurtasuna lortzeko Ibilbide Erabakigarria babesteko ere, Santo Domingoko Goi-bilera beraren emaitza.

Eskualdean lehentasunezkoak ez diren herrialdeetan, non Espainiako lankidetzaren finkatuta ez dagoen, gorago aipatutako eskualdeko ikuspegi bidez lan egin ahal izango da (adibidez, Kariben, CARICOM erakundearekin eta beste azpieskualdeko erakunde batzuekin elkartasunean). Herrialde horietako batzuk, hala nola Txile edo Uruguai, ezin dira GLOaren hartzaile gisa hautatu ELGaren GLBaren arabera, errenta altuko herrialdeetarako ezarritako muga gainditu dutelako. Kasu horietan, eskualdearen edo hiru aldeko lankidetzaren ikuspegitik helduko zaio lanari.

Horrela, lehentasunezko herrialde bakoitzarekin ezartzen den alde biko programaziotik haratago, Espainiako lankidetzaren Latinoamerikako eta Karibeko eskualdean bertako erakundeekin lankidetzako estrategiak indartzera bideratuko da, baita lan-ikuspegi horizontalak eta eskualdeko edo azpieskualdeko ikuspegia dutenak diseinatzera ere, besteak beste:

- Demokrazia Programa berriaren lanean sakonduko da, sistema demokratikoak indartzeko, adostasunak sortzeko elkarrizketarako guneak errazteko, gizarte zibilaria eta demokraziaren kalitatea hobetu dezaketen beste eragile batzuei laguntzeko, eta giza eskubideen erabilera eraginkorra babesteko eta sustatzeko. Gainera, giza eskubideen defendatzaileen programa bat diseinatuko da, kazetariak barne hartuz, babesteko sare komunitarioen sorrera sustatzeko eta defendatzaileak lurraldean gera daitezela laguntzeko.
- SICA erakundearekin lankidetzaren programa berri bat egingo da, esku hartzeko sektoreak eta tresnak zabaltzeko aukera emango duena eta Espainia-SICA Funtsekin esparru zabala batean txertatuko duena.

- Espainia-CARICOM Funtsekin berpiztuko da, Espainiako lankidetzaren agerpen txikiagoa duen eskualdearen eragin-sektoreetan arreta jarriz eta Iberoamerikako lankidetzaren eremuko esku-hartzeekin koordinatuta, lana hondamendi naturalen prebentziora, osasunera eta elikagaien segurtasunera bideratuz.
- Trantsizioan dagoen garapenaren kontzeptuarekin bat datorren lankidetzaren programa bat diseinatuko da Hego Konoko herrialdeekin, ezagutza trukatzeko eta sortzeko jardueren bidez elkarrekin identifikatutako ildoetan lan egiteko aukera emango duena.
- Lankidetzarako hiru aldeko eredu bat diseinatuko da, erakundeen eskaerei erantzutea ahalbidetuko duena eskaintzaileen arteko elkartasunak sortuz.
- Programazioetan berrikuntza publikoa txertatzea ardatz izango duen Interconnecta eskualdeko programaren diseinuan sakonduko da, elkarrekin sortzeko prozesuetako lanetik abiatuta eta administrazio hainbat mailatako kideekin.

### Afrika eta mundu arabiarra

Afrikan, planetako Giza Garapenaren Indize baxueneko herrialde gehienak biltzen dituen kontinente mugakidean, pobrezia, gosea, klima-aldaketaren ondorioak eta erakundearen ahultasuna kontinentearen garapen jasangarriko prozesuei eragiten dieten funtsezko osagaiak dira. Aukera faltak, indarkeriak eta elikagaien segurtasunik ezak areagotu egin dute zaurgarritasuna eta, horren ondorioz, era askotako pertsonen joan-etorriak gertatzen dira, batez ere kontinentearen barruan.

Izan ere, Afrikan gazte ugari daude, eta haien enpleguko eta egonkortasuneko itxaropenak ezin dira erraz bete. Ezegonkortasun politikoak, osasun-larrialdiek, gatazka armatuek, pertsonen eta migratzaileen trafikoak, gizarte-tentsioek eta klima-aldaketaren ondorioek behar

humanitarioak handitu dituzte krisialdi kronikoak dauden testuinguruetan. Krisiek haurrengan duten eragina bereziki larria da, haurren heriotza-tasa handiak, haurren desnutrizio-tasa kezkagarriak, indarkeria-maila handiak, hezkuntzarako sarbidean eragina eta gizarte-eta osasun-zerbitzuetarako sarbiderik eza nagusi baitira.

Espainiak lotura historiko, kultural eta mugakideko lotura estu dituen Afrikako iparraldeko eta Ekialde Hurbileko eskualdeetako herrialdeak errenta ertaineko herrialdeak dira gehienak, eta hainbat erronka komun dituzte, besteak beste klima-aldaketaren ondorioak eta basamortuzaren aurkako borroka; edo eskualdeko lankidetzaren mekanismoetan, emakumearen berdintasuna lortzeko politiketan eta gazteentzako etorkizuneko aukerak sortzean sakontzen jarraitzeko beharra.

Bi eskualdeetan Espainiako lankidetzak garapen ekonomiko barneratzailearen arloan egiten duen lana indartuko du, eta arreta berezia jarriko du gazteentzako aukerak sortzean, bereziki emakumeentzat. Era berean, uraren eta saneamenduaren arloko lana zabalduko da Latinoamerikako eta Karibeko eskarmentutik abiatuta, eta gobernagarritasunaren arloko lana zabaltzearen (deszentralizazioaren aldeko laguntza barne), emakumeen ahalduentze politiko eta ekonomikoaren, gizarte zibilaren indartzearen eta klima-aldaketaren eta bere ondorioen aurkako borrokaren aldeko apustua egingo da.

Afrikan eta Ekialde Hurbilean eskualdeko lankidetzaren sustatzeko esparruan, honako prozesu hauetan egingo da aurrera:

- Saharaz hegoaldeko Afrikan Espainiako lankidetzaren estrategia bat zehaztuko da.
- Hegoaldeko Mediterraneorako lankidetzarako eskualdeko estrategia berri bat garatuko da, Espainiako lankidetzaren helburuak eta baliabideak eskualdearen egungo erronkara egokituko dituena, hegoaldeko herrialde

guztietan esku-hartzearen koherentziari lehentasuna emanez eta eskualdean elkartasun iraunkorrak eraikitzea erraztuz.

- CEDEAO erakundearekin dauden eskualdeko lankidetzaren programak berrituko dira, bereziki nekazaritzan, energia berriztagarrietan eta genero-berdintasunean, baita Afrikako Batasuneko Garapenaren Agentziarekin (AUDA-NEPAD, ingelesezko sigletan) ere, besteak beste.
- Mendebaldeko Afrikarekin egiten den lana indartzen jarraituko da eta Saheli arreta berria emango zaio, Sahel Aliantzaren Batzar Nagusiaren Espainiako presidentetzan zehar eta eskualdeko herrialdeei lagundu bitartean ikasitako ikasbideen balioa azpimarratuz.

### 3.3.3 Espainiako lankidetzarako arretako herrialdeak

Aipatutako lehentasunezko eskualde eta herrialdeez gain, Espainiako lankidetzak noizean behin lan egiteko beste arretako herrialde batzuk identifikatu ahal izango dira, bereziki munduko ondasun publikoak sustatzeko edo krisialdiei (humanitarioak ez direnak) edo sor daitezkeen garapeneko erronkei erantzuteko.

Horregatik eta, hala badagokio, Europar Batasunarekin koordinatuta, Espainiako lankidetzak lehentasunezkoak ez diren edo lehentasunezko eskualdeetakoak ez diren herrialdeetan jardun ahal izango du honako egoera hauetan:

- FONPRODE/FEDES funtsak egindako finantza-lankidetzaren esparruan. Izan ere, lehenik eta behin lehentasunezko herrialdeei arreta emango dien arren, lehentasunezko eskualdeetako beste herrialde batzuetako eta lehentasunezkoak ez diren garatzeko bidean dauden beste herrialde batzuetako esku-hartzeak finantzatu ahal izango ditu; azken kasu horretan, munduko ondasun

publikoen finantzaketa denean (adibidez, klima-aldaketaren aurkako borroka edo munduko osasuna).

- Aurreko kategorietan aurreikusi gabeko GLOak jasotzen dituzten herrialdeetan. Larrialdi bat edo bat-batean sortutako krisialdiko egoera bat nagusitzen denean, lankidetzarako hainbat bide daude aldi berean, ekintza humanitarioaren, garapenaren eta bakearen eraikuntzaren arteko loturaren ikuspegitik. Larrialdi humanitarioaren eta, hala badagokio, birgaitze goiztiarraren faseari ekin ondoren, lankidetzaren egonkorragoa izan dezakete, garapenerako lankidetzatik eta bakearen eraikuntzatik heldutako behar eta erronketan sakonduko duten berriskuratzeko eta berreraikitzekeo prozesuei laguntzeko jardueren bidez. Gida Plan hau egiteko unean, arreta bereziki herrialdeak dira Ukraina (non Espainiako lankidetzaren konpromiso irmoa duen ekintza humanitarioaren arloan, baita herrialdearen susperraldi, erresilientzia eta berreraikitzearen alde ere) eta Afganistan.
- Espainiako administrazio publikoek lankidetzaren tekniko publikoko proiektuak sustatzen dituzten aurreko lehentasun geografikoei aipatutako eskualdeetako herrialdeetan (EBko ekialdeko inguruaz eta mendebaldeko Balkanez gain), Gida Plan honetan garapen jasangarrirako helburuekin zehaztutako sektoreetan. Kasu horietan, proiektu horiek Administrazio eta Politika Publikoen Nazioarteko eta Iberoamerikarako Fundazioak (FIIAPP, gaztelaniaz) kudeatu ahal izango ditu.

Arretako herrialde horiekin ez da beharrezkoa izango herrialdeko elkartzeko esparruak, garapen jasangarrirako elkartzeko esparruak edo behin-behineko lankidetzako estrategiak sinatzea. Hala ere, lankidetzaren arloko jarduerak garatzeko gai diren erakundearen artean aldizkako hitzarmenak egin ahal izango dira, komeni bada. Nolanahi ere, egoera horretan dagoen herrialde bakoitzerako berariazko ekintzako estrategia bat garatuko da eta, ber-

tan, gaikako, aurrekontuko eta lurraldeko helburuak zehaztuko dira.

### 3.4. Lehentasun aldeaniztunak

Espainiak aldeaniztasun sendo, berritu eta indartuaren alde egiten du, eraginkorrago, eragileago, koherenteago, gardenago, demokratiago eta barneratzaileago izan daitekeena. Horregatik, herrialdeak munduko gobernantza handiagoa eta hobea bultzatuko du gero eta konektatuagoa eta elkarren mendekoa den mundu baten erronkei eta aukerei aurre egiteko. Ekintza horren bihotzean Nazio Batuekin egiten dugun lana egongo da, bereziki Nazio Batuen garapen-sistemaren erreformarako prozesuaren esparruan.

Prozesu horren bidez sistema berrantolatu nahi da, agentzien arteko koordinazioa hobetzeko, baita lankidetzaren gainerako eragile publiko eta pribatuekiko koordinazioa ere, herrialde kideekin elkartzeko eraginkor eta eraldatzaile bat ezartzeko GJHen txertaketa bizkortze aldera. Ildo horretatik, lan egingo da aurrekontu orokorrari ekarpenak eginez eta munduko, eskualdeko eta tokiko mailan estrategikoak diren programa eta proiektuei ekarpenak eginez, arretako ildo zehatzak landu daitezkeen eta sistemari malguagoa eta egokitzailagoa izateko behar adinako tartekak ematen lagundu dadin. Lankidetzaren aldeaniztuneko beste eragile espezializatu batzuekin ere lan egingo da, kide aldeaniztunen arteko oreka sustatuz. Horrek Nazio Batuen eta Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren nazioarteko mugimenduaren nazioarteko erakunde humanitarioak ere hartzen ditu.

Horiekin eta alde aurretik aipatutako lehenetsitako gainerako erakundeekin (G20, ELGA, etab.), honako ekintza-ardatz hauetan jarriko dugu arreta bereziki:

- Aldeaniztasun indartsuagoa, eraginkoragoa, berrituagoa eta bizkortuagoa sortzeko aukera ematen duen sistema aldeaniztuna

- indartzean, arauetan oinarritutakoa eta bere muinean Nazio Batu indartuak eta barneratzaileak izango dituena.
- Genero-arrakalak murriztean, arreta berezia jarritz sexu- eta ugalketa-eskubideak benetan erabiltzeari, genero-indarkeriaren aurkako borrokari, parte-hartze politikoari eta emakumeen ahalduntze ekonomikoari.
  - Haur, nerabe eta gazteen eskubideak sustatzean eta babestean.
  - Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak sustatzean eta babestean.
  - LGTBI pertsonen eskubideak sustatzean eta babestean.
  - Munduko osasunaren antolaketa indartzean, OME erdigunean jarrita eta tresnen arteko antolaketa sendoa izanda.
  - Erakunde demokratikoetan hobekuntzak bultzatzean, arreta berezia jarritz hauteskunde-prozesuetan, erakunde eraginkor eta gardeenak sortzean eta lurraldeetan 2030 Agenda ezartzen laguntzean, eta giza eskubideak (haur, nerabe eta gazteen eskubideak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak, LGTBI pertsonen eskubideak eta mugikortasuneko egoeran dauden pertsonen eskubideak, herri indigenen eskubideak eta afro-ondorengoen eskubideak barne) eraginkortasunez erabiltzea bermatuko duten demokrazia ireki eta barneratzaileak sustatzean.
  - Bioaniztasunaren galeraren aurkako borrokan eta klima-aldaketara egokitzean eta hori arintzean.
  - Elikagaien segurtasuna bermatzeko aukera ematen duten eta fase guztietan jasangarriak diren elikadura-sistemak babestean eta sustatzean, elikatzeko eskubidea eta elikadura osasungarri, egoki eta eskuragarriko eskubidea ziurtatzeko elkartasunak bultzatuz.
  - Desparekotasunak murrizten dituzten gizarte barneratzaileak sortzeko politika ekonomikoak, fiskalak, sozialak eta zerbitzu publikoak kudeatzeko politikak diseinatzen laguntzean.
  - Eragileen arteko elkartasunen ikuspegia sustatzean, 2030 Agenda lortzeko (17. GJH).



# 4 PLANGINTZA





## 4.1. Aldebiko plangintza

Adierazi den bezala, lehentasunezko herrialdeen estrategia bereziak zehaztuko dira kideekin batera lan-esparrua sortzeko, eta lehentasunezko herrialde bakoitzerako Espainiako lankidetzaren lanaren plangintzako dokumentu bat egingo da, ezarritako irizpideen arabera. Estrategiak hiru motatakoak izan daitezke:

### 1. Garapen jasangarrirako elkartzeko esparruak

Elkartzeko esparruak Espainiako lankidetzaren aldebiko plangintza estrategiko geografikorako tresna bihurtu dira. Horiei esker, herrialde kideen garapeneko helburuekin bat egin eta GJHak betetzen aurrera egin daiteke, Espainiako lankidetzak balio erantsirik handiena duen sektoreetan arreta jarritz. Garapen jasangarriaren, jabetzearen eta bat egitearen emaitzen arabera lan-logikak aukera ematen du eraginkortasunaren gai-zerrendan sakontzeko, baita politiken, koherentziaren eta eragile eta maila anitzeko elkartasunen elkarrizketarako guneak sortzeko ere, Espainiako lankidetzaren lanak herrialde kidean eta haren lurraldeetan duen eragin eraldatzailea maximizatu ahal izateko.

### 2. Garapen jasangarrirako elkartasunak

Herrialde kideekin adostutako eta aldebiko hitzarmenetan egituratutako estrategia bereizi horiek trantsizioan dagoen garapenaren ikuspegian oinarrituko dira, eta munduko eta eskualdeko ondasun publikoak lortzeko edo babesteko eta politika publiko barneratzaile eta berritzaileak bultzatzeko katalizatzaile gisa identifikatutako garapeneko sektore edo eremu jakin batzuetara bideratuko dute lankidetzak. Elkartasun horiek aurreko lankidetzak aurreratuko hitzarmenak ordezkatzen dituzte neurri batean.

### 3. Lankidetzako estrategiak

Halaber, lankidetzako estrategiak ezartzeko aukera egongo da, baldin eta herrialde

horietan ezin bada kasuan kasuko agintaritzekin negoziatutako elkartzeko esparruak edo elkartasunak garatu eta ezarri, edo garatzea egokia ez bada. Kasu horietan, Espainiako lankidetzak metodologia berri baten arabera diseinatuko ditu estrategia horiek. Aipatutako metodologia Gida Plan honen indarraldian garatuko da eta, nolana ere, gizarte zibilarekin kontsultako eta elkarrizketako prozesu bat izango du. Estrategia horiek errazagoak eta arinagoak izango dira, eta izaera iragankorra izango dute elkartzeko esparrua edo elkartasunak ezartzeko baldintzak betetzen diren arte. Testuinguru horretan, lankidetzarako programa zabala goak eta egonkorragoak aztertze aukera emango duten behin-behineko jarduerak edo jarduera pilotuak aurreikusitako izango dira.

Beraz, elkartzeko esparruek eta elkartasunek Espainiaren eta herrialde kideen arteko garapen jasangarrirako lankidetzako eta politiken elkarrizketako esparru estrategikoa ezarriko dute, herrialde kidearekin eta haren erakundeekin adostutako lehentasunak islatuz. Hitzarmen horiek Espainiako lankidetzak sistema garatzen duen aldebiko garapen jasangarrirako lankidetzak zuzenduko dute, eta Espainiaren eta herrialde kidearen artean sinatutako batzorde mistoko hitzarmenetan sartuko dira. Herrialde kideekiko aldebiko plangintzako tresna horiek garapen jasangarriaren aldeko eta giza eskubideak babesteko eta bermatzeko politiken eraginkortasuneko eta koherentziako oinarri jarraituko dituzte.

Politiken elkarrizketa EBko programazio-dokumentuetan ezartzen denarekin koordinatuko eta bateratuko dela saiaturiko da eta, bereziki, Europa Taldeko programazio bateratuarekin. Gainera, Nazio Batuen Koordinazio Egoiliarreko Bulegoak nazioarteko eragile guztiekin koordinatuko dituen politiken elkarrizketarekin bateratzen saiaturiko da, Nazio Batuek herrialde kidearekin duten laguntza-esparrua eta estatuko finantzaketarako esparru integratuak zehazteko. Esparru horiek erreferentzia izango dira herrialde kidearen garapen jasangarriaren eta GJHen aldeko munduko elkartasunerako.

Espainiako lankidetzaren iritziz, lurraldearen alderdia beharrezkoa da 2030 Agendak proposatzen duen eraldaketa bizkortzeko, eta Espainiak balio erantsi egokia du egitura deszentralizatu duelako eta GJHak kokatzen esperientzia duelako. Halaber, Espainiako lankidetzaren eragileen eta herrialde kideko eragileen arteko elkartasunen lanean sakonduko da, elkartasun instituzionalak barne. Horrek aukera emango luke herrialde bateko eragile publiko eta pribatuaren arteko elkartasun globala zehazteko eta epe luzera lurralde batean dauden garapen jasangarrirako erronka eta helburu komun eta partekatuei heltzeko. Horrek esan nahi du beste era batean elkarreragin behar dela eta zehaztutako xede partekatuak betetzeko lan egiteko modua aldatu behar dela. Plangintzako eredu horrek erraztu egingo luke eragile bakoitzak garapen jasangarriaren helburuetara zuzendutako ekintzak txertatzeko ekar ditzakeen baliabideak (finantzarioak zein finantzarioak ez direnak), gaitasunak, teknologiak, datuak eta berrikuntza mugiaraztea.

## 4.2. Ekintza aldeaniztunaren plangintza

Eremu aldeaniztuneari ikuspegi estrategiko eta koordinatua antolatzeko helburuarekin, eta 1/2023 Legearen agindua betetz, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak, Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzaren bidez, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioarekin batera, eta ministerioko beste sail batzuen parte-hartzearekin, garapen jasangarrirako politika aldeaniztuneko estrategia bat egingo du, eraldatzailea eta lehenetasunak, ildoak eta oinarriak ezartzen dituena datozen urteetan hainbat eragilerekin egiten diren elkartasunen eta ekarpenen sareari koherentzia eta aurreikusteko moduko izaera emateko. Era berean, gure elkarte estrategikoak zehaztuko ditu helburu zehatzetan oinarrituta, baita Nazio Batuen agentzia, funts eta programekin edo eremu bakoitzean balio erantsi handiagoa duten erakunde eta organismo aldeaniztunekin egiten

diren elkarteak ere. Hori guztia, lankidetzaren aldeaniztuneko eraginkortasunaren eta eragingarritasunaren, aurreikusteko moduko izaeraren, kalitatearen eta kudeaketaren hobekuntzaren ikuspegitik. Era berean, ahal den neurrian, esparru honetan garapen jasangarrirako berrikuntza sustatuko da, baita balio erantsi berezia izan dezaketen Espainiako lankidetzaren beste lan-modalitate batzuekiko osagarritasuna ere.

Etorkizuneko estrategiaren esparruan, Espainiako lankidetzak bere ahalmen instituzionalak eta giza ahalmenak indartuko ditu Nazio Batuen garapen jasangarrirako sistemaren barruan eginkizun garrantzitsua izateko, lankidetzaren aldeaniztun eraginkorra, estrategikoa, eraldatzailea eta jarraitua ahalbidetzeko. Era berean, espainiarrak erakunde aldeaniztunetako maila guztietan egotea indartuko da, bai Nazio Batuen sisteman, bai beste sistema batzuetan.

Eragina eta koherentzia hobetze aldera, elkartzeko esparru estrategikoak egingo dira lehenetasunezko zatitza identifikatutako erakunde eta instituzio aldeaniztun finantzarioekin eta finantzarioak ez direnekin. Espainiako lankidetzaren ohiko kideak izan diren Nazio Batuen agentzia eta programekin (PNUD, UNICEF, NBE Emakumeak eta FNUAP) lehenik dauden esparruak eguneratuko dira, eta garrantziagatik eta funtsak emateagatik lankidetzako esparru berezia eskatzen dutenak txertatuko dira. Elkartzeko esparru estrategikoek xedea, ikuspegia eta oinarri partekatuak; lehenetasunezko zatitza jotako baterako lan-ildoak; eta emaitzei buruzko konfiantza ematea eta komunikazio publiko eraginkorra barnean hartuko dituzte. Kontrako alderdiekin elkarriketan eta koordinatuta egingo dira elkartzeko esparru estrategikoak.

## 4.3. Espainiako lankidetzaren plangintza Europar Batasunaren esparruan

Europa Taldea ikuspegia 2020an sortu zen, COVID-19 gaixotasunak eragindako pandemiari

aurre egiteko Europako Batzordeak hartutako erantzun bateratuaren ondorioz, eta Europako erakundeen, estatu kideen eta haien txertatzeko agentzien eta garapenerako finantza-erakundeen arteko elkarlanean oinarritzen da. Europa Taldea ikuspegiaren helburua kideen interes estrategikoetan sinergiak zehaztea da, herrialde edo eskualde batean eragin jasangarria lortzeko emandako baliabideak optimizatzeko. Horren bidez, batasuneko, elkartasuneko eta bateratzeko mezua bidali nahi da, giza garapenaren lehentasunei erantzuteko, elkarrekin bidezko modu jasangarri, barneratzaile eta ekologikoan eraikiz eta Europako esku-hartzeen ikusgarritasuna indartuz "elkarrekin hobeto lan egin" lelopean. Espainiako lankidetzak kideekiko harrimana elkarriketa politikoan oinarritzearen aldeko apustua egiten du, eta hortik sortzen da politika zehatzetan eta hitzarmenak txertatzen dituzten eta gure kideen beharrei erantzuten dieten tresnetan lan egiteko adostasuna.

Europa Taldea ikuspegiaren Europar

Batasunaren urte anitzeko programa adierazgarrien funtsezko oinarrietako bat eta Auzotasuneko, Garapeneko eta Nazioarteko Lankidetzako Tresnaren (NDICI-Europa Global, ingelesez) programazio-jarraibideen oinarritzko zatia da. Pixkanaka beste jarduera batzuetan ezartzen ari dira, hala nola Europar Batasunaren eta estatu kideen arteko koordinazioan garapenerako nazioarteko erakundeen eta konferentzia aldeaniztunen aurrean, edo herrialde kideetako konektagarritasunean eta azpiegiturretan inbertsio publiko eta pribatua egiteko Europako baliabideak mugiarazteko Global Gateway estrategian. Espainiako lankidetzak lan egingo du Europa Taldea ikuspegiaren eta programazioaren eta txertaketa gehiago eta hobeto bateratzeko. Global Gateway ekimenean, gobernantza barneratzailea eta helburu sozialak



